

GUaiXE.eUS



Erligio-musika kontzertua bihar Altsasuko elizan



Kultura >> 14

Lakuntza-Aralar mendi lasterketa igandean jokatuko da. 9:30ean abiatuko **diren korrikalariek 24,7 km-ko ibilbidea** osatuko dute



Kirolak >> 13

Larunbatean udal berrien osaketak >>3



Konpostarekin etxera >>5



Olatzagutiko pintura azkarreko lehiaketa etzi >>15



Altsasu Memoriaren bigarren aurkezpena >>7

URTEKO-MARKA!!!
15.001
bisita MAIATZEAN

Webgure berria sortu zenerdik bisita kopuruen bilakaera:



ESKERRIK ASKO DENOI!



Altsasuko Mendi-Bizikleta Zeharkaldiak 20 urte etzi >>13



San Juan baleontzia ikusteko doako sarrerak >>3



Txakurrak ardatz dituen elkartasun festa Altsasun >>7



publi@guaixe.eus 948 564 275
publizitatea@guaixe.eus 948 562 107

ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



- Leihoen, ateen eta kontraleihoen fabrikazio eta muntaketa
- Balkoien eta terrazen itxitura
- Kolore guztietako mallorkinak
- Konpromezurik gabeko aurrekontua

info@dekovennavarra.com • www.dekovennavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia - ALTSASU • Tel./Faxa: 948 468 360 • Telefono mugikorra: 690 641 860



Beñat Lz. Gauna Etxagibel
ZORIONAK zure 4 urtetan!! Ze ongi pasatzen dugun zure antzerki eta dantzekin eta horrela jarraitu nahi dugu!



Miren Murua Ugalde
ZORIONAK politte eta urte on askotarako, etxeko guztion partetik.



Urko ZORIONAK amatxoren eta aitaxoren partez eta asko maite zaituen zure nesKaren partez. Muxuak. Etxekoak.



Jesus Mari Olmos
Jesus Mari berezia zara!! Muxu bat. Miresle bat.



Iraide ZORIONAK sorgintxo zure lehenengo urtebetetzean!! Muxu asko etxekoan partez.

Bazkideek deskontua

Bakarra:

4,00€

Bazkideak:

3,50€

garagarriak

12-18

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Ikasturte akaberako kontzertua. Garagarriaren 12an, ostiralean, 18:30ean Irurtzango plazan. **Irurtzango musika eskolako konbo eta taldeak.**

Lakuntza kantuz. Garagarriaren 12an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako plazan.

La prima Janis. Garagarriaren 12an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean.

Asalto eta dj sorpresa. Garagarriaren 13an, larunbatean, 22:00etan Altsasuko gaztetxean. **Garraxi Irratia.**

Iñaki Auzmendi. Garagarriaren 13an, larunbatean, 23:00etan Lakuntzako Sorgiñak tabernan.

Ikasturte akaberako kontzertua. Garagarriaren 16an, asteartean, 18:00etan Lakuntzako kultur etxean. **San Saastin musika eskolako ikasleak.**

Dantza

Ikasturte akaberako jaialdia. Garagarriaren 12an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasuko dantza garaikideko ikasleak.**

Antzerkia

Verdi que te quiero Verdi. Garagarriaren 13an, larunbatean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Oroimenak antzerki taldea.**

Proiekzioak

Transantartica. Garagarriaren 12an, ostiralean, 20:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Mikel Zabalza.**

Dokumentalak

Chazon: colegio y orfanato (Molo, Kenia). Garagarriaren 12an, ostiralean, 19:00etan Hiriberriko kultur etxean. Ondoren hitzaldia. **Arakil Kultura.**

Mendi irteerak

Lizarrusti-Lizarrusti. Garagarriaren 14an, igandean, goizean. **Irurtzango Iratxo mendi taldea.**

Bizikleta irteerak

Altsasu-Markalain-Altsasu. Garagarriaren 13an, larunbatean, 8:30ean Altsasuko kultur gune partetik. 118 km. **Zikloturista taldea.**

XX. Altsasuko zeharkaldia.



La prima Janis.

Garagarriaren 14an, domekan, 9:00etan Altsasuko plazan. 50 km. **Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Lentzeria. Garagarriaren 13an, larunbatean, 18:00etatik 20:00etara eta garagarriaren 14an, domekan, 11:30etik 14:30era eta 18:00etatik

20:00etara Olatzagutiko kultur etxean.

Ingurumenaren hobekuntza. Garagarriaren 14ra arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko Iortia kultur gunean. **Aralarko Mikel Donea institutua.**

Bertsolaritza

Sakanako bertso eskolen saioa. Garagarriaren 18an, ostegunetan, 20:00etan Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

Ikasleak eta Julio Soto. Garagarriaren 12an, ostiralean, 12:30ean Urdiaingo Kaluxa tabernan.

Mahai-ingurua

Erabakitze eskubidea. Garagarriaren 18an, ostegunetan, 19:00etan Altsasuko Iortia kultur gunean. Hizlariak: Ainhoa Aznarez (Ahal Dugu), Jon Maia (bertsolaria eta idazlea), Maialen Etxeberria (Ernaiko Bozeramailea) eta Geroa Baiko kide bat. Moderatzailea, Angel Oiarbide. **Gure Esku Dago.**

Pintura

VIII. Olatzagutiko Pintura Azkarreko

Iehiaketa. Garagarriaren 14an, domekan, 9:00etatik aurrera Olatzagutian.

Bestelakoak

Ezgitasunen aldeko V. jaialdia. Garagarriaren 13an, larunbatean, 10:00etatik aurrera eta garagarriaren 14an, domekan, 9:00etatik aurrera Altsasuko kaputxinoen komentu ondoan.

Sutegi Eguna. Garagarriaren 13an, larunbatean, 16:30etik aurrera Olatzagutiko Erburua kiroldegian.

Altsasuko memoriaren II. atalaren aurkezpena. Garagarriaren 13an, larunbatean, 19:30ean Altsasuko Iortia kultur gunean. **Altsasu Memoria.**

Joste eguna. Garagarriaren 14an, igandean, 18:00etatik aurrera Arbizuko plazan.

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 12an, ostiralean, 20:00etan Lakuntzako, Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

Euskal Presoak Euskal Herrira! Garagarriaren 14an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Ostiralero SAIOA

9:30etan

Gaurko gaiak:

- Dantzarima
- Confiñt proiektuaz
- E21. Gure esku dago

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Esataria: Eneida

107.3 FM

beleixe

www.guaixe.eus-en ON LINE



ANGEL OIARBIDE

Garagarrilak 18, osteguna, 18:00etan, Guaixen **ON-LINE ELKARRIZKETA**
Bidali zure galderak www.guaixe.eus bidez

ezkaatza >>

SAKANA

Ia denak aurrera selektibitatean

Unibertsitate sartzeko proba aurkeztu ziren 45 ikasle sakandarretatik 44k gainditu dute



Aralarko Mikel Donea institutuko D ereduan 49 ikasle matrikulatu ziren batxilergoko 2. mailan. 41ek gainditu zuten ikasturtea eta selektibitatean aurkeztea 37 ikasle erabaki zuten, besteek bestelako ikasketak aukeratu. 37 ikasleek gainditu dute unibertsitatean sartzeko proba. Aereduan, berriz, 13 ikasle matrikulatu ziren eta 6k gainditu zuten. 2k bestelako ikasketen aldeko hautua egin zuten eta 4 selektibitatean aurkeztu ziren. 3 izan dira gainditu dutenak. Iruñeko Biurdana institutuan D ereduan ikasten ari diren Arakil aldeko 3 ikasleek ere gainditu zuten proba. Euren notarekin ados ez dauden ikasleek azterketaren baten errebisioa eskatzeko aukera izanen dute. Gaindituz dutenek hilaren 24 eta 26 artean izanen dute bigarren aukera.

SAKANA



San Juan baleontzia pixkanaka itxura hartzen ari da. WWW.ALBAOLA.COM

Sakandarrek dohainik ikus dezakete San Juan baleontziaren eraikuntza

Asteleheneretik aurrera Sakanan erroldatutako pertsona bakoitzak Pasaia San Pedroko Albaola itsas faktoria bisitatzeko txartel bana eskuratu dezake bere udaletxean

San Juan baleontzia 1565 urtean Kanadako Red Bayn urperatu zen. Pasa den mendeko 70eko hamarkadan arkeologoen hura opatu zuten. Garai bateko euskal itsasontzigen adierazle bat da. Albaola Itsas Ondarearen fundazioa haren errepika eraikitzen ari da bere ontzian. Eta eraikuntza hori posible egiteko Sakanako herriek 200 haritzekin hornitu zuten Albaola. Eraikuntza lanak 2019 edo 2020 rako

despeditzea aurreikusten da.

Sakanaren eta Albaolaren arteko hitzarmenaren ondorioz, 20.504 sakandarrek ontziola eta Hondartxo museoa dohainik bisitatzeko aukera izanen dugu aurten. 3.230 sarrera ikastetxeen bidez banatuko dira. Norbere udaletxean jaso beharko dituzte sarrerak; erroldatu bakoitzeko bana. Ontziolarako bita librea edo gidatua izan daiteke. Azken aukera hori nahi dutenek gutxienez bi eguneko aurrerapenarekin jakinarazi behar dute 943 392 426 edo bisitak@albaola.com helbidean.

>>

Bihar osatuko dira udalak

Maiatzaren 24ko hauteskundetan aukeratutako udalak bihar osatuko dira. Herri guztietan alkatea zein izanen den erabakia dago. Salbuespena Altsasu da. Zerrenda bozkatuenak Geroa Bai alkatetzak lortzeko erronkari heldu dio. Azken bi asteetan ordezkariak lortu duten alderdiekin harremanak izan ditu. Paktuak beharrezko legegintzaldian zehar akordio puntualak lortzea eta udal ardurak partekatzea proposatu die. Gai horietan alderdiek zein jarra hartuko duten ikusi beharko da.

Bestalde, Altsasun Geroa Bako Santiaga Luceño Ariasek zinegotzi karguari uko egin zio eta bere ordezkari Manuel Bergera Ijurko ariko da. Olatzagutian, berriz, aukeratuak izan diren bederatzik zinegotzietatik bik ez dute kargua hartuko. EH Bilduren hautagaitzan 3. zen Haizea Armendariz Santamariaren ordezkari Ibai Barandiaran Albiztur izanen da zinegotzia. UPNko zerrendan 2. hautagaia zen Juan Jose Galarza Aldaberen ordezkari Javier Fernandez Brizuela izanen da zinegotzi aulkian eseriko dena.



Bakaikuko udaletxea.

Udal osaketaren ordutegiak

Ordua	Udala
8:00etan	Bakaiku
9:00etan	Iturmendi
10:00etan	Arbizu
11:00etan	Arakil
	Irañeta
	Ergoiena
	Olatzagutia
12:00etan	Irurtzun
	Uharte Arakil
	Lakuntza
	Altsasu
13:00etan	Arruazu
	Etzarri Arantaz
	Ziordia
19:00etan	Urdiain

Sakanako gida

2015-2016

IRAGARRI NAHI DUZU?

AZKEN EGUNA: UZTAILAK 31

948 564 275 · 948 562 107

publi@guaixe.eus (Eneida)

publizitatea@guaixe.eus (Maria)



Zoila Berastegi

astekoa

Udalak

Historia beti dator gero, berandu ere ez nuke esango, dagokion momentuan, baina gero. Iraganaren erreinuan dago. Izan zenaren lekuan. Baina badira gertakizun batzuk, gertatzen diren uanean bertan, historiko egiten direnak. Memorian txertatzen dira, ahaztezin eginez. Historia istoriaren azalean jartzen da. Ez dut ahaztuko zer ari nintzen egiten dorre

bikiak erori ziren uanean, edota ETAK bere ibilbide armatuaren behin betiko bukaera iragarri zuenean.

Pasa den maiatzaren 24ko hauteskundeak historikoak izan ziren. Eta ez dakit hemendik hamar urtera gutako bakoitzak gogoratuko duen zertan zebilen UPN Nafarroako Gobernutik eta Iruñeko Udaletik bota genuene-

an, baina tira, berdin-berdin, emaitza historikoak. Politika egiteko beste modu baten behararen islada. Beste politiko batzuk, beste politika bat. Zentzu horretan, udaletxeak dira herritarrengandik gertuen dauden instituzioak. Herritarrek herriarentzat lanean.

Jakin badakigu, ez dela batereraz udalean lanean aritzea.

Krisi garai hauetan, are zailago. Ez da plan erakargarria gehiengoarentzat: herritarren istiluak, kritikak, erabaki deserosoak hartu beharra, ple-noak, behatz akusatzaileak... Baina badira haien denbora pertsonala herriari eskaintzea erabakitzen dutenak, eskuzabal-tasun osoz, bestelako ikuspuntu batekin agian: lan-taldea, ilu-

sioa, konpromisoa, aukera... Eta haiei esker, gu bezalako herritarrek diren horiei esker, udalak martxan daude. Ez bakarrik kudeaketari dagokionez, baizik eta proiektu politiko propio batekin, herria eraikiz, euskal herriak eraikiz. Nire miarresmena, nire esker ona eta nire bozka bihotz-bihotzez, udalean zabiltzaten guztioi.

hara zer dien

Berdintasun eza eta bazterkeria hemen gelditzen zaigu

Badaramatzagu hilabete batzuk entzuten krisia bukatzen ari dela eta gainera datu batzuk ematen dizkigute informazio horren fidagarritasuna handitzeko. Horretan botere ekonomiko oso trebea da, logika, datuak eta argudioak erabiliz oso ongi jazten baitituzte beren planteamenduak.

Arazoa sortzen zaigu hainbat datu eta argudio aipatzen ez direlako.

Orain dela bi hilabete Nafarroako Unibertsitate Publikoak CIPARAIS-en bigarren txoste-

na aurkeztu zuen eta bertan krisi irteera honen beste datu batzuk jakinarazi zizkiguten:

- gizarte taldeen arteko desoreka,
- 47.786 langabetu eizen emanda Nafarroan 2014ko abenduan, hauetatik 27.000 iraupen luzekoak (datu hau krisi hasieran 7,5 aldiz txikiagoa zen),
- behin-behineko eta lanaldi-partzialeko kontratuak sortzen ari dira eta behin betikoak eta lanaldi osokoak desagertzen,
- onartezinak ziren lan baldin-

tzak orain eskertzekoak bihurtu dira.

- Nafarroan 2007an %1,7 familiariek etxeko pertsona guztiak langabezian zituzten, 2013an, berriz, %10,6ak.

- Langabeziako babes sistemak langabezian zeuden pertsonen %78,7ak babesten zituen Nafarroan 2009an. 2014aren azaroan %55,23a bakarrik.

- 2012an pobrezia gogorren zeuden %37,9ak zuten lana, honek erakusten digu lana izateak ez duela pobreziatik ateratzea ziurtatzen.

Ekonomistek esaten dutenez historia ziklikoa da eta krisiak bueltatuko direla. Krisi gogor hau iritsi aurretik ongizate sistema sortuta genuen eta berak lortu du kolpea handia izanda ere, txikiagoa egitea. Orain neurri handi batean ongizate sistema hautsi dugu. Hemendik 15 urtetara hurrengo krisia etortzen denean, zein babes izango dugu? Hemen dugu orain gure erronka. Gure babesa eta gure eskubideak babesteko zein gizarte eta sistema mota sortu nahi dugun pen-

tsatu behar dugu.

Botere ekonomikoek ez digute bidea erraztuko, beraien datuak, argudioak eta logikak kutsatuko gaituzte. Bidea taldean egin behar dugu eta arlo publikoan dugu konponbide bakarra. Gure esku dago baloreei begiratzea eta gureak zeintzuk diren finkatzea. Horrela gure norabidea finkatu eta kontsekuenteak izan beharko dugu gure eguneroko bizitzan. Izan ere, gure balore horiekin bat egiten duten datuak egon badaude.

Iruztungo Gizarte Zerbitzua

barrutik kanpora

Emaitza pozgarriak

Maiatzaren 24ko hauteskundeek emaitza pozgarriak utzi dituzte gurean. Badirudi erregimenaren gainbehera, hainbeste alditan kalean aldarrikaturikoa, hemen dagoela eta aldatetaren aldeko eragileak adostasunera heltzeko prest daudela. Saiatu dira UPN PSN eta PPko ordezkariak beldurraren politika zabal-tzen kanpainan zehar: "Gu edo kaosa", "badatoz euskaldunak" (hemen betidanik egongo ez bagina bezala) izan dira haien ideia nagusiak eta egia esan, uste eta merezi zituzten baino emaitza hobek izan

dituzte. Bakarrik kontuan hartu behar dugu azken urte hauetan egin dutena: CAN auzia bere dieta, laguntzako kreditu eta desagertuarekin, Los Arcoseko zirkuitua, itzalpeko bidesariak eta orokorrean ezkertiar edo euskal kutsua duten edozein ekimenen aurkako jarrera oldarkorra. Hau guztia jakinda ere gure bailaran 2400 bozka atera dituzte erregimenaren aldekoek. Ziur gaude beraiek ere murrizketak jasan dituztela, zerbitzu publikoen okertzea eta orokorrean Sakanak bizi izan duen utzikeria baino tira notizia hau da, aldaketa-

ren alde 7818 pertsona agertu direla.

Horregatik pozik gaude, aldaketarekin konprometituak egongara eta egongo gara. Urte luze hauetan bizi izandakoa aldatzeko denbora beharko da eta pazientzia eta eskuzabaltasunez aritzea guztion betebeharra izan beharko du. Helburuak berdina izaten jarraitzen du. Sakanak bizi eta lan egin nahi dugu eta hau lortzeko bidean, nafarroan sortzen ari diren aukera berriak aprobetxatuko ditugu. Zorionak guztioi baina bide luzea dugu oraindik.

Abian plataforma

objektibo tik



Arbizuko plaza jostunez betetzera:
Gure Esku Dago dinamika arbizuarrek igandean jostun izatera gonbidatu ditu, 19:00etan, plazan. Arbizun joste tailerraren lana arinago egiteko musika eta taloak izanen dira. Bestalde, Gure Esku Dagoren kamixetak eta 21eko Iruñeko ekitaldirako sarrerak ere salgai izanen dira.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe  

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.eus
ERREDAKZIOA: Maider Betelu Ganboa • kirolak@guaixe.eus
MAKETATZAILEA: Ainhoa Etxeberria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.eus
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.eus
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Maialen Huarte Arano, Eñaut

Agirrebengoa Apaolaza eta Larraitx Amadoz Lazkano
ZUZENTZAILEA: Garazi Garzia Mauleon
ARGITARATZAILEA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILEA: Goizeder Anton Iturralde • bierrik@guaixe.eus
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.eus
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea • zorion@guaixe.eus

LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

BAZKIDEAK 

Mank
s a k a n a

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HEZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

SAKANA



Mank-eko hezitzaileak konposta banatzen eta olaztiarren azalpenak entzuten.

Zikloa itxita, Sakanako Konposta etxean

Sakanako Mankomunitateko Hondakin Zerbitzuko langileak aste honetan hasi dira auzo-konpostagailua erabiltzen duten sakandarren artean konposta banatzen. Harrera ona izan du konpostak sakandarren artean

Sakanako Konposta pegatina duten 20 kiloko zakuak banatzen ari dira Hondakin Zerbitzuko hezitzaileak herriz herri. Zakuen karga dela eta, batzuk autoarekin eta besteak erosketetarako gurdiarekin joan dira. Auzo-konpostagailuak erabiltzen ari diren sakandarrek dute euren konpost zakua hartzeko aukera. Euren herrietan jasotzerik ez dutenek edo txanda pasa zaienei, herri guztietako banaketa bukatu ondoren, Arbizuko hondakindegian jasotzeko aukera izanen dute. Udalendako ere izanen da, herrietako berdeguneetan erabil dezaten.

Mank-eko hezitzaile Beñat Agirre Bengoetxeak esan digunez, bai haiek bai herritarrek konposta banatzeko gogoia zuten. "Haiek egindako ahaleginak saria duela ikusteak jendea pozten du". Kostatu bada, Agirrek zehaztu digu, "lehen konpost txanda egitea gehiago kostatzen delako da". Kali-

tate nahiko oneko konposta da banatzen ari direna. Hala diote laborategietan egindako azterketek: "ez dago inolako arazorik, kalitatezko neurgailu guztiek oso adierazle onak izan dituzte.

Beraz, baratzerako, berdeguneetan eta lorontzietan erabili daiteke". Aurreko bietan zuzenean erabili daiteke Sakanako Konposta. Baina lorontzietan hiru zati lur eta zati bat konpost nahastea aholkatu dute hezitzaileak, "bestela landarea erreko litzateke. Lur itxura badu ere, ongari modukoa da".

Prozesua

Zakuetan doana 2013ko gariletik abendura arte eta 2014ko zati batean jasotako materia organikoarekin egindakoa da. Mank-en hasierako asmoa zen konposta ontzeko prozesu guztia auzo-konpostagailuetan egitea. "Baina zorionez konposta egiteko guk uste genuen-

na baino jende gehiagok izena eman duenez, auzo-konpostagailuen gaitasunarekin arazotxo batzuk izaten arigara. Lehen txandari gehiago kostatzen zaionez, konposta bukatu gabe atera genuen eta Arbizuko hondakinde-

gian bukatu zen prozesua". Sei hilabete edo urte bat egon daiteke han eta hura despeditzean ontzen da. Ondoren, laginak laborategietara bidaltzen dira eta konpostak ezer okerrik ez duela ziurtatzeko. Horren ondoren zakuetan sartu, txukun jarri eta banatzen hasi dira.

Jendeak auzo-konpostagailuen zer nolako erabilera egiten duen galdetuta, Agirrek esan digu, gero eta hobe dela. Zerbitzuko beste langile batzuk egiten dute jarraipena orain, baina hezitzaileek hasieran ikusi zuten kosta egiten zitzaioela jendeari. "Batzonek zuten ongi ulertu, beste batzuk nahita erabilera okerra egiten zuten. Baina pixkanaka egoera dexente hobetzen ari dela ikusten dugu. Auzo-konpostagailu batean zerbait gaizki dagoela ikusten badugu erabiltzaileekin hitz egin eta nola egin behar den azaltzen diegu. Ezjakintasuna edo gaizki ulertuengatik egin daiteke".

Hasieran duda zuten materia organikoaren artean zeuden gauza batzuk konpostari nola eragiten zion. "Baina emaitzek ez dute halakorik azaldu. Hobetu daiteke, baina bide onean doa".

Altsasu

Bi auzo-konpostagailu jarri dira, baina egin beharreko lan guztiak aste honetan edo hurrengoan despedituko dira. "Dena perfektu zegoela hasi nahi genuen". Zerbitzuan aztertzen ari dira Altsasun bizpahiru aste barru hasi edo uda ondorenerako uztea: "altsasurrak hasiteko gogoz daude, baina uda garaian arazoak sortuko diren edo ez, ez dakigunez, haiekin hitz egin nahi dugu".

Irurtzun

Auzo-konpostagailuak erabiltzen azkenak irurtzundarrak izan dira. 100 familiak euren borondatez eman dute izena auzo-konposta egiteko eta borondate onarekin egiten dute. "Gu egunero bisitatzen ditugu auzo-konpostagailuak. Baina Irurtzongo kasuan, boluntarioak dira, guk gutxieneko jarraipena egiten dugu, temperatura eta beste kontrolatzeko. Baina gero gauza desegokiak ateratzea, bueltak ematea Irurtzongo boluntarioen esku dago", azaldu digu Agirrek. Eta gaineratu du: "oso pozik gaude, inplikazio gehiago ikusten delako. Eredu hori pixkanaka beste herrietara zabaltzea espero dugu".

Greenpeaceren Sakanako begirada

Argitaratu berri duen txostenean hondakin bilketa sistema berria eta 3MB plataformaren lana alde positiboan jarri du. Negatiboan, berriz, Olatzagutiko porlandegian errausteko asmoa

Greenpeacek joan den astean *Ingurumenaren Erradiografia Sozialaren Txostena* aurkeztu zuen. Estatuako ingurumen egoeraren diagnosia da lana. Txostenak dioenez, krisiaren biktimak ahaztua izan da ingurumena eta horrek gizartearen eragin nabarmenak izan ditu. Nafarroak maila ertaina du Greenpeacen ingurumen kalitate indizean. Basoen kudeaketa ona eta frackingaren kontrako jarrera nabarmendu ditu. Sakanan indarrean jarritako hondakin bilketa berriak Greenpeacen oniritzia jaso du.

Konpostaren sustapena eta atez ateko hondakin bilketaren inguruerakunde ekologistak dio aldaketan aitzindaria dela Sakana: "lurralde batzuk besteak aurreratzen dituzte eta ingurumenaren aurkako erasoei galga jartzen diete". Bestetik, enplegu berdean nabarmendu nahi izan du: "ingurumenaren zaintza enpleguen iturri agortezina eta jasagarria da".

NEGATIBOA

Olatzagutiko porlandegian hondakinak erregai gisa erabiltzeko asmoa "orban kutsatzaileratza" hartu du eta hiru puntu oker ikusi ditu. Lehenik, "negotio batzuen ondorioa ingurumenak eta pertsonen osasunak ordaintzen dute". Bigarrena, "Nafarroako Gobernuan ardurak izan ondoren CPVn zuzendaritzan dauden pertsonak, ate birakariak, salatu ditu. Azkenik, Greenpeacek dio "aberasteko eta ingurumena suntsitzeko erabiltzen dutenen eskutan bukatzen du askotan guztien diruak".

Olatzagutian erraustearen kontra 3MB plataforma egiten ari den lana nabarmendu du Greenpeacek: "herritarrei ingurumena inporta zaie eta defendatzeko mugitzen dira". Alde positiboan jarri du lan hori.

+www.guaixe.eus

Egutegia				
Herria	Lekua	Eguna	Data	Ordua
Bakaiku	Plazan	Ostirala	Ekainak 12	11:00-13:00
Etxarri Aranatz	Estalopean	Astelehena	Ekainak 15	11:00-13:00
Arbizu	Plazan	Asteartea	Ekainak 16	11:00-13:00
Lakuntza	Plazan	Asteazkena	Ekainak 17	11:00-13:00
Uhartea Arakil	Udaletxe ondoan	Osteguna	Ekainak 18	11:00-13:00



IRTEN EGUNEROKOTASUNETIK.

CITROËN C4 CACTUS. CROSSOVERRA KOLORE GEHIAGOREKIN.

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

ABC 2015 EKO ESPAINIAKO URTEKO KOTXEA



CITROËN C4 CACTUS
PURETECH 82 FEEL EDITION

12.900€^{-REN TRUKE}

7^o KO ESKUZKO PANTAILA
AIRBUMP BABESLEAK®
KLIMATIZATZAILE AUTOMATIKOA
6 AIRBAGS
17^o KO ALEAZIO HAGUNAK



citroen.es

CITROËN nahiago TOTAL. *CITROËN nahiago TOTAL *PSP Aholkatuta C4 Cactus Pure Tech 82 Feel Edition (zergak, garraioa, eskaintzak eta Pive 8 Plana barne), bere izenean zegoen kotxea ekartzen duten bezero partikularrendako eskaintza 6.000€ko gutxieneko finantzazio eskatzen dutenak Banque PSA Financieren bidez 36 hilabeteko iraupena izango dutenak. Eskaintzaren epea hilabete akabera arte, Penintsulan eta Balearetan. PSP Aholkatuta finantzatzeko ez duen bezeroarentzat: 14.100€. Ikusgai dagoen eredu, aurkezten den bera. Baldintzak www.citroen.es (1) Citroën Asistencia: baldintzak www.citroen.es. Automóviles Citroën España, S.A c/ Dr. Esquerdo, 62 - 28007 Madrid. CIF: A-8284473

KONSUMO MIXTOA (L/100KM) / EMISION CO₂ (G/KM): CITROËN C4 CACTUS: 3, 1 - 4,7 / 82 - 107

AUTO TALLERES SAN MIGUEL S.A. • ALTSASU • 948 562 261 • IRURTZUN • 948 600 657 • www.autsanmiguel.com



>> Altsasu

Ikastolaren bizikleta eguna

Iñigo Aritza ikastolako makina bat ikasleek ikastolarako joan-etorria bizikletan egin dute

Ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzeko, herenegun Iñigo Aritza ikastolako ikasle ugari bi gupil gainean joan ziren ikastetxera, guraso batzuk lagunduta. Zumalakarregi plazatik abiatu zen ikasle tropela 8:40an. Ibilbidean tropela handitzen joan zen ikasleak San Juan, Zelai, Gartzia Ximeñez eta Txioika ikastolan zain zeuden ikasle gehiagorekin. Guztiak 8:50erako Basomuturreko ikastolara iritsi ziren. Aldez aurretik ikasleei bizikleta tropelean joateko emandako aholkuak errespetatu zituzten.



Bizibusaren geldialdietako bat Txioika ikastola parean zegoen.

Iñigo Aritza ikastolatik jakinaz, heldu den ikasturtean ikastetxera bizikletan joateko martxan jarri nahi duten Bizibus proiektuaren proba eguna izan zen herenegungoa.

Beste esperientzia batzuk

Aralarko Mikel Donea institutuak, Ingurumena Hobekuntza programaren barruan, ikasleen artean bizikletaren erabilera sustatzen du. Kirol heziketa departamendua arduratzen da mugikortasuna lantzeaz. Hala maiatzean ibilbideak egiten dituzte. Bestalde, Sagrado Corazon ikastetxean hainbat urte daramate ikasleak elkarrekin ikastetxera joaten. Ikastolan bezala, hainbat geldialdi egiten dituzte eta taldeko arduraduna ikasle guztiak taldera batu zaizkiola ziurtatu ondo-

Andra Mari ikastolak logo berria du



Argiñe Berastegik egin du eta Sakanako basoetako hostoek osatzen dute. Andra Mari ikastolak eraikin berriarekin batera, hainbat proiektu pedagogiko berri eta berritzaile martxan jartzen ari da. Aro berri baten hasieran daudela diote ikastolaren irudian ere isla izan behar zuela iruditu zitzaion. Horregatik, logotipo lehia-keta antolatu zuten. 19 proposamen aurkeztu ziren eta epaimahaia (hiru guraso eta hezkuntza etapa bakoitzeko irakasle bana) Argiñe Berastegirena aukeratu zuten.

ren, ikastetxerako bidean segitzen dute.

Ingurumenarekiko kezkarekin institututik Bruselara

Nazioarteko gazteen konferentzia da Confint eta haien artean ingurumen konpromisoa sustatzeko helburuz bost kontinenteetan aurrera eramaten ari diren dinamika bat da

Confint Europako Gazteriaren Konferentziaren bigarren edizioa egin zen maiatzaren 19tik 23ra. Bigarren edizioeko ekitaldia Bruselako Eskualdeetako Batzordean egin zen eta han Eskola Jasangarrien Sareko kontinenteko 50 bat ikasle elkartu ziren. Estatuko 11 ordezkariaren artean Aralarko Mikel Donea institutuko Maite Martinez altsasuarra izan zen. 16urteko DBH 4ko ikasleak esan digunez, “esperientzia ahaztezina eta oso ona” izan da. Lagunasko egin dugu, gainera. Hiria ezagutzeko apenas izan zuten aukerarik eta horrekin kexu da.

Confint proiektua

Bruselan nola bukatu duen galde-tuta, Martinezek azaldu digunez, “joan den urtean hasi zen dena. Mundua hobetzeko proiektu bat egin behar genuela esan ziguten. Kutsadura handia dagoenez, atmosfera eta gure ingurua garbitzeko proiektuak egin ditugu. Gu ez bagara zein izanen da mundua zainduko duena?”

Ingurumena Hobetzen programa zortzi urte darama indarrean Aralarko Mikel Donea institutuan. Haren barruan, Martinezek kontatu duenez, ikastetxeko patioa garbitu zuten. Ogitar-tekoak biltzeko aluminio paper asko jaso zuten. “Astean eta hilabete zehar zenbat aluminio gastatzen genuen kalkulatu genuen. Aluminioagatik asko kutsatzen ari garela jabetu ginen”. Ingurumena Hobetzen programaren barruan institutu inguruko erreken ingurumen egoera ere aztertu zuten.

Institutuan bilera bat egin zuten eta hiru ordezkari aukeratu zituzten. Duela urte bat, Iruñean, Nafarroako Confint topaketan beste



Maite Martinez, ezkerrean, Bruselako egonaldian.

hiru ikastetxerekin elkartu ziren. Altsasun egindako lanaren berri eman zuten poster baten bidez eta errekek garbitzeko egin zitekeen azaldu zuten. Ikastetxeetako ikasleak taldeka bildu eta ideiak eta ekintzak trukatu zituzten. Topaketa hartan beste ordezkari batzuk aukeratu zituzten eta azaroan, Bartzelonara, estatuko Confint topaketara joan ziren. Hantailer asko egin zituzten eta oso dibertigarria izan zela esan digu Martinezek. Antzerkiak eta hala-koak egin zituzten. Hiria ezagutzeko egun bat ere izan zuten.

Brusela

Martinez Bruselan izan da. Bartzelonan bozketa egin zuten eta berak nafarren artean boto gehien jaso zuten. Bruselan Europako Confint topaketan dozena bat herrialdeetako 50 bat ikasle elkartu ziren. Estatuko 11 ordezkariak talde handiena ziren eta haietako bat Martinez zen. Aldi berean, “Espainia okerren zegoena zela ikusi genuen. Guk egia esaten genuen. Beste lekuetakoak ez edo oso arazo gutxi zituzten. Italiarrak, esaterako, herri txiki batekoak ziren baina ez dakigu hirietan zer gertatzen den. Ez zuten Italia guztia ordezkatzin”.

Iruñean topaketan jarritako posterrekin Bruselan erakutsi zuen Martinezek. Bestalde, estatuko aurkez-

Nafarroako Confint topaketa

Hilaren 4an egin zen Iruñean. Zortzi ikastetxek parte hartu zuten, horien artean Aralarko Mikel Donea eta Sagrado Corazon ikastetxea. Lehenengoko ordezkariak Ingurumena Hobetzen proiektuaren berri eman zuten. Bigarren Uharte Arakil, Etxarri Aranatz eta Altsasuko ekintzak. Estatuko eta Europako Confint topaketak bi urtero direnez, Aralarko Mikel Doneako ordezkariak ez dira batera eta bestera ibiliko.

penean parte hartu zuen. Ingelesean emantzitzen azalpenak. Bestalde, Europako topaketako hiruzpalau ordezkari Parisera joan dira abenduan. Europako jende garrantzitsuekin hitz eginen dute. Bruselan esandakoa kontatu eta idatzi zuten manifestuaren berri emanen diete.

Institutuan, bitartean, “oraindik jende askok aluminioan biltzen dugu ogitar-tekoak. Baina boc'n rollak erabiltzen saiatzen ari gara. Plastikozko oihal moduko bat da, egunero garbitu daitekeena. Ez duzu kutsatzen”. Ingurumenaren alde gutxiegi egiten dugula iritzi dio ikasleak, eta mugitu beharko dugula iritzi dio.

Institututik ingurumena hobetzen



Aralarko Mikel Donea institutuko ikasleek ingurumenaren inguruan egindako ikerketak, eskulanak eta teknologia lanak Altsasuko Iortia kultur gunean daude ikusgai igandera arte

Zortzigarren urtean Aralarko Mikel Donea institutuan Ingurumena Hobekuntza programa aurrera eramaten dute. Ikasleek ingurumena babesteko premiaz sentsibilizatu nahi dituzte. Eta, bide batez, ikastetxearen ingurumena hobetu nahi dute. Ikasleak ikerlari bihurtu dira. Hondakinen eta birziklapenaren eta uraren eta

Lehen zatian, hondakinekin zer egin, banaketa nola egin behar den, institutua zikin dagoen... Gai horien inguruko eztabaidak sustatu eta proiektuak egiten dituzte. Aurten, esaterako, ikasleek patioan paperontziak falta zirela esan dute. Aurretik bosgarren

edukiontzia jarrita dute. Beste batzuk daudenak erdibitu dituzte eta beste batzuk parioa garbi edo zikin dagoen baloratzeko hango hondakinak jaso dituzte, hura pisatu. Bestalde, ikasturte honetan baratza eta negutegia martxan jarri dute eta konpostagailuan sortutako konpostan erabiltzeko aukera dute.

Ikastetxearen ur kontsumoa kontrolatzen saiatzen dira, baita txorroten emaria ere. Ikastetxe inguruko erreken uraren analisia ere egiten dute, haren kalitatea aztertzeko. Hobekien Urdaingo igerilekuek atetik jaisten dena eta okerren Altzania dago, hala ere, seien kalitatea onargarria da. Gainera, energia eta elektrizitate gastuaren diagnostia egin dute. Ikastetxera begirako lana da, baina bide batez ikasleak sentsibilizatu nahi dituzte, euren etxe eta herrietan eragiteko.

» Bakaiku / Iturmendi / Urdiain

Baso ordenazio plana bi urtetan egingen da

Nafarroako Gobernuak 58.849,11 euro bideratuko ditu Bakaikuko, Iturmendiko eta Urdiaingo baso ordenazio plana egiteko. Bi urte beharko dira plana egiteko. Aurten hartara 12.358,31 euro bideratuko dira eta heldu den urtean 46.490,8. 2016ko abendurako izanen

dute eskutan udaletako kideek. Planaren helburua basokudeaketa jasagarria bermatzea da eta baso-zertifikazioa izatea. Horretarako basoko baliabide guztiak hartuko dira kontuan, beti ere ekologia eta bio-aniztasun prozesuen mantenua ziurtatuz.

Bestetik, Ingurumen Departamentutik jakinarazi digute Sakanan ez dagoela fustrarium circinatum onddoak kaltetutako pinudirik eta, beraz, ez dela Baztan, Malerrekan edo Ultzaman aurreikusitako neurrik hartuko. Radiata pinuei kalte handia egingo ondoko horrek.



Iturmendi, atzean beheko basoa.

» Altsasu

Herriko historiari bigarren begirada

Altsasu Memoriak bere bilketaren bigarren atala aurkeztuko du larunbatean, 19:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

Altsasu Memoriak herriko hainbat gertakari ahanzturaren zulotik atera eta Altsasu historia osatu eta berreraikitze asmoz lanean ari da. Joan den urtean 76 eta 1950 urteen arteko historiaren errepaso aurkeztu zuen. Bihar bigarren aurkezpen bat egingen du, 1950 eta 1992 urteen arteko aldiari dagokiona. Aurkezpenen musika (Enrike Zelaia, Zubiondo abesbatza eta Arrebote) eta dantza ez dira faltako. Altsasu Memoriak iragarri du 1992tik gaur egunera arteko errepaso egingen duen hirugarren atal bat ere izanen da.

Altsasuren historiaren errepaso hori bi zatitan banatu du Altsasu Memoriak. Aurrena 1950 eta 1976 urteen artekoa hartzen du.

Epe horren hasieran "gizarte eta kultur garapenean benetako basamortuaz Altsasu". 50eko hamarkadan Fasan izandako greba gogoraziko dute. 60ko hamarkadaren errepaso egiterakoan aipatuko dituzte: Segura Irratiaren hedatzea, folkloreak zuen jazarpena, erbesteko Eusko Jaurlaritzan altsasuar batek parte hartzeko jasotako gonbitea, inguruko mendietan jarritako ikurrinak, sindikatuen sorrera, Ez dok Amairu eta Enrike Zelaia edota ikastolen sorrera.

Lehen atal hori, 70eko hamarkadan izandako dantzari egunarekin, Gure Etxeak sorrarazitako mugimendua, Altsasuko ikastolaren sorrera, Nafarroako grebak, Txiki eta Otaegiren fusilamenduak, euskal jaiak eta Urbasan izandako filmaketak aipatuko dira. www.guaixe.eus



Francoren heriotzatik eta intsumisiora arteko errepaso egingen dute bihar.

»

Txakurrak ardatz dituen elkartasun festa



Ane eta piratek behar bereziak dituzten sakandarren aldeko jai prest dute.

Larunbatean, 10:00etatik aurrera eta, domekan, 9:00etatik aurrera Altsasuko kaputxinoen komentu ondoan

Bocalan Biak Bat (BBB) antolatutako behar bereziak dituztenen aldeko elkartasun jaialdia. Bosgarren edizioa, aurrekoak bezala, Altsasuko kaputxinoen komentua zenak hartuko du. Irabazi asmorik gabeko elkarte da BBB. Biarlotan lan egiten dute: animaliek lagundutako esku-hartzeak bultzatzen (terapia, hezkuntza eta ekintzak) eta ezintasuna duten pertsonen laguntzeko laguntza txakurrak heztea.

BBBk bere eguneroko jardunean ikusi du euren esku-hartzeekin kolektiboetako pertsonen hobekuntza nabarmenak lortzen dituztela. Baina erakundeek laguntza eskasa da eta familiek ezin dute terapiak duten kostua ordaindu.

Ekarpenak

12 urtez azpikoek euro bat. Egun bakarrerakosarrerak 3 euro balio ditu eta bi egunetakoak 5. Jaialdira joan ezin duenak diru ekarpena egin dezake honako kontu korrontean: ES07 2095 5500 40 9113685012.

Horregatik, BBB zerbitzu hori eskaini ahala izateko, makina bat jaialdi eta azoken bidez finantzazioa lortzen saiatzen da.

Asteburuan Altsasun antolatutako duen jaialdiaren helburua da sarrera, tonbola, taberna eta bestelako bidez dirua lortzea. Diru hori gero behar bereziak dituztenei zuzendutako animaliekin lagundutako terapia eta laguntza txakurren proiektuetara bidera-

Egitaraua

»» Garagarriak 13,

larunbata

10:00etan Txakur herri-lehiaketarako izen ematea eta hasiera

11:00etan Dantzarima taldearekin, dantzan.

11:00etatik 14:00etara Umeen txokoa: jolasak eta ekintzak.

12:00etan Txakur herri-lehiaketa: maskotarik ederrena, originalena, jabearen antza gehien duena, handiena, jatorrena eta bihurrienari sariak.

13:00etan Dantza erakustaldia. Dantzarima taldea.

14:00etan Herri bazkaria.

15:00etan Ipar ligako agility proba.

Beauceron monografikoa: hasiera: izaera eta morfologia proba.

17:00etatik 20:00etara Umeen txokoa: jolasak eta ekintzak.

17:00etan Ane eta Piratek. Sagrado Corazon ikastetxearen frontoian.

18:00etan Txokolate-jatea.

19:00etan Txakur herri-lehiaketaren sari ematea.

»» Garilak 14, domeka

9:00etan Beauceron monografikoa: gomendatze alearen agiria lortzeko epaiketak.

10:00etan Nafarroako Txakur Txapelketako lehiaketa.

11:00etatik 14:00etara Umeen txokoa: jolasak eta ekintzak.

14:00etan Herri-bazkaria.

17:00etatik 20:00etara Umeen txokoa: jolasak eta ekintzak.

17:00etan Falkoneria erakustaldia.

18:00etan Txokolate-jatea.

19:00etan Txakur trebetasun eta diziplina erakustaldia: defentsa, detekzioa, babesa.

19:00etan Txakur-gaitasunen lehiaketa.

Bi egunetan artisauek azoka izanen da.

tuko da. Horregatik, jaialdiaren bosgarren edizio honetan ere familiendako eta animalien maitaleendako giro atsegina sortuko da. Horretarako, txakurren inguruko ikuskizun eta ekintzekin batera haurrendako makina bat jardura izanen dira.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!
Berria erosi taldea

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta
Astehenetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€
Asteburuetan
Menu berezia 25€
948 467 876 • Altsasu

TXIKIXO
haurren arropa eta lentzeria
948 46 73 08
Ferialeku 2 • ALTSASU

Txioka haur ikastolak ordezkapen bat egiteko pertsona bat behar du
GUTXIENKOAK:
• Majisteritza titulua HH espezialitatean, Majisteritza gradua edo Haur Hezkuntzako goi teknikaria.
• EGA
BIDALI BEHARREKOAK:
• Curriculumak, ziurtagiriek.
• Bidaltzeko azken eguna, EKAINAK 18, eguerdiko 12:00ak arte.
• curriculumak@inigoaritz.com
Puntuazio altuena jasotako arteko artean harremanetan jarriko gara, beste guztien curriculumak lan politan geldituko dira.
TXIOKA
haur ikastola



Nonerabili

IZASKUN BEUNZA ARKITEKTOA

ALTSASU

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berrien proiektuetan, %20a ziurtagiri energetikoan eta energia fakturaren irakurketa eta analisia doan.

IOSUNE MARAURI

ALTSASU

Bakarko sesioetan %10eko deskontua

KIKI ARGAZKI DENDA

ALTSASU

15x20 cm-ko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

TANIA ARRAINDEGIA

LAKUNTZA

50 €ko gastuarekin, etxeko produktua doan.

LAKUNTZAKO OSTATUA

LAKUNTZA

Menuarekin, kafea edo kopa doan.

ZURE EKO DENDA

IRURTZUN

€10 eko deskontua kontsul-ta terapeutikoetan.

HOTEL OLATZEA

ARBIZU

Eguneko menuarekin, kafea doan, menu bereziarekin, txupittoa doan.

ETXARRI HORTZ KLINIKA

ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua garbiketetan.

LURESU

ALTSASU

%10eko deskontua eskaintza berezi eta enkarguetan izan ezik.

www.guaixe.eus-en zerrrenda osoa ikusgai



>> Altsasu

Erabakitze eskubideari buruzko mahai ingurua

Ostegunean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

Gure Esku Dago dinamika herritarrak erabakitze eskubidea "herri honetan bizi garen guztion topalekua izanen delakoan ari gara, herritarrok gure etorkizuna erabaki dezagun". Herritarrak eskubide horren inguruan biltzeko hilaren 21erako ekitaldia antola-

tu dute Iruñean.

Hiru egun lehenago Gure Esku Dago Altsasun erabakitze eskubideari buruzko mahai ingurua antolatua du. Ainhoa Aznarez (Ahal Dugu), Jon Maia (bertsolaria eta idazlea), Maialen Etxeberria (Ernaiko Bozeramailea) eta Geroa Baiko kide bat izanen dira. Angel Oiarbide izanen da dinamizatzailea.

Iturmendiko jostundegia



Larunbatean, jostun ugari, gazteak gehienak, elkartu ziren erabakitze eskubidearen aldeko euren aldarrikapenak oihal zatitan marraztu eta idazteko. Haietako josi egin zituzten. Izan ere, hilaren 21ean Iruñean sortuko duten hautestontzi erraldoia egiteko erabiliko dira.

>> Irurtzun

Denak arroz ale

Larunbatean bederatzi arroz mota ezberdin dastatzeko aukera izan zen Irurtzunen. Argentina, Gambia, Irurtzun, Senegal eta Venezuelar jatorriko sukaldariak jendaurrean prestatu zituzten arrozak. Estreina-ko ekimenean parte hartu zuten San Martin jubilatuek arteak. Haien batera Maroko eta Saharako jatorria zuten bi emakumek cous-cousa ere prestatu zuten. Guztiek



Sukaldariak arroz prestatzen eta bisitariak azalpenak entzuten.

ere, arroz aleak bezala, berdina- karela aldarrikatzeko.

Irurtzundar ugari pasa ziren plaza- tik arroz errezeta berriak

ezagutzera. Baita Lorena Arangoa ere, umore ukitua jarriz eguerdian. Aniztasunaren oka jolasean ari- tze- ko aukera izan zuten haur eta

Altsasura

Zestauk adierazi zigunez, Munduko Arrozake kimena Altsasun egin nahi dute. Lehen urratsak ematen hasiak dira. Bakarren batek lagundu nahiko balu Mank-eko Immigrazio Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko luke: immigrazio@sakana-mank.com edo 648 070 710.

helduek. Guztiek bukatzean arroz- a dastatzeko eman zieten elkar- tutakoei eta guztiek elkarrekin bazkaltzen bukatu zuten.

SAKANA

Jendetza Aralarko Corpus Christin

Eguraldia lagun, Corpus egunean, igandean, jende ugari elkartu zen Aralarko santutegian. Hiru elizki- zun izan ziren eta hiruen ondoren Aralarko aingerua gurtu zuten fededun- ek. Azken elizkizunaren, meza nagusiaren ondoren, santutegitik Trinitateko ermitara prozesioa egin zen, gurutzeta nagusia buru zela. Atzean, aingeruaren irudia, apaiz- a palio azpian, eta hainbat fededun.

Gobernuari eskaera

Santutegian Corpus eguna beti ospatu da. 30eko hamarkadan hain- bat tokitan egiteari utzi zioten eta horrek bultzada eman zion Ara- larko santutegiko ospakizun kris- tauari. Arrakastak santutegi ingu-



Trinitateko ermitatik santutergira bueltan. UTZITAKOIA

ruko aparkalekuak txiki utzi zituen. Hala gertatzen da gero eta maizago, Aralarko santutegian zerbait berezia dagoen aldi bakoit- zean. Kofradiako kideak Nafa-

rroako Gobernuarekin harreman- etan jarri izan dira aparkatzeko arazo horri konponbidea emate- ko, baina oraingoz erantzunik ez dute jaso.

MOTZEAN

UEUkoendako diru-laguntzak

Sakanako Mankomunitateko Euska- ra Zerbitzuak Udako Euskal Uniber- tsitateko ikastaroetara joanen diren sakandarrei matrikula, egoitza eta kilometraje gastuekin lagundu nahi die. Horregatik, diru-laguntza deial- dia egin du. 500 euroko diru-poltsa aurreikusitako Mank-ek. UEUn ikas- taroetan parte hartzen dutenek diru-laguntza eskaera abenduaren 19a baino lehen egin beharko dute. Horretarako, eskaera orri bete, nor- tasun agiriaren kopia, erroldatze ziur- tagiria, UEUren asistentzia agiria, matrikularen ordainagiria, kilome-

trajearen agiria edo garraio txarte- lak aurkeztu beharko dira. Langa- beek, gainera, gizarte segurantzak emandako lan bizitza agiria ere aurkeztu beharko dute.

Suarez, Berria Taldeko kontseilari

Berria Taldeak (Berria egunkaria, Hitzak eta beste enpresak) larunba- tean akziodunen batzarra egin zuen. Joan den urteko martxaren eta aur- tongo egitasmoen berri eman zizkie- ten Andoainen bildu ziren akziodu- nei. Horrekin batera Berria Taldeko kontseilua berri- tu zen. Castillo Sua- rez altsasuarra sartu da, Dabid Anau- tek utzitako tokia betetz. Suarez filo- logoa da eta Sakanako Mankomuni-

tatean euskara teknikaria da. Idazle gisa ezagutuko dute askok. Aurretik euskalgintzako hainbat erakunde- tako zuzendaritzan aritu izan da, esa- terako, Bierrik fundazioan.

Alde Zaharreko auzokideak elkarrekin festan

Hirugarren urtez jarraian Altsasuko Alde Zaharreko auzotarrak euren festa ospatzera elkartuko dira bihar. Festaren ardatza bazkariada eta har- tan 120 auzotarretik gora elkartuko dira. Ondoren musika, zortzikoa eta giro alaia ziurtatuak izanen dira. Gai- nera, egin dezakeen uriari aurre egi- teko prest daude, aurreko bi edizio-

>> Etxarri Aranatz

San Kirikotik San Adrianera

Etxarriko patriaren eguna ospa- tuko da bihar. San Kiriko. Eguerdi- ko meza- ren ondoren eliz atetik herriko soroak bedeinkatuko dira. Arratsaldean, koadrilak merenda- tze- ra elkartuko dira. Plazan dantzara- ko doinuak The Trikiteens talde- ak jarriko ditu; 20:00etatik 21:00eta- ra eta 22:30etik 2:30era. Asteartean San Adriango erromeriak hartuko dio segida. Goizter mugitu, fritada gosaldia, meza, familia bazka- riak, dantzaldiak eta Gernikako Arbo- la kantatu ondoren herrirako bidea hartuko dute, kalejira, 19:00ak alde- ra. Plazan, 20:30etik 21:30era eta 22:30etik 2:30era Oharkabe taldeak dantzarako doinuak eskainiko ditu. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

etatik gelditutako potearekin 80 bat pertsonarendako aterpea ematen duen karpa erosi baitute. Gainontze- koendako aterpea ere eskuratu dute.

Hilabete atzeratu da FyTko kideen epaiketa

Espainiako Auzitegi Nazionalak Falange y Tradición taldeko hiru kideren epaiketa hilabete atzera- tu du, garriaren 13 eta 15 bitarte- an egiteko. Epaituetako baten pro- kuradoreak auto istripua izan zuen maiatzean eta zauriak sendatu bitartean epaiketan ezin zenez egon, hura atzeratzea onartu dute.



GRUPO TANATORIO

IRACHE

TANATORIO TALDEA

948 197 070

Tanatorioak: Altsasu-Irurtzun-Lekunberri-Betelu-Leitza www.tanatoriosirache.com

Oroigarriak



Guaixe
KOMUNIKAZIOA

948 564 275



Jesus Goñi Araña

Ekainak 13, I. urteurrena

Hilezkor izan nahi duzu
eta hilezkor zara,
hilezkor bihotz guztietan,
bihotzean...
bizi, irri, nigar, heriotz, bihotz.

Maite zaitugu
Zure familia



Martin Lazkano Azpiroz

Ez zaitugu inoiz ahaztuko

Sakana S. Coopeko lankideen partez

Lakuntzan, 2015eko ekainaren 12an.



GRUPO

Funeraria VASCONGADA

Ehorzketak

TALDEA

Olaberrian bertan **BEILATOKIA** eta **ERRAUSTOKIA**
www.funerariavascongada.com

24 ORDUZ: 943 106 222 • 943 376 980

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

4 DENETARIK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

5 IBILGAILUAK

8 FAMILIA/ETXEA

3 LANA/NEGOZIOAK

6 HARREMANAK

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Guaixe astekarrian: Astebete: 3€ / 3 Astez: 8€ (BEZ barne).

Argazki bakoitzeko 3€.

Lan eskaerak/eskaintzak eta pribatuak ez diren ikastaroak: **doan**.Webgunean: guaixe.iragarkilaburrak.com-en.

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: zorian@guaixe.eus

Lana/ Negozioak

LAN ESKAINTZA

Begirale bat behar da. Urdiaingo Udan Euskaraz kanpainarako. Curriculumak ekainaren 19ra arte Urdiaingo udaletxera eraman edo bidali helbide honetara: urdiain1@urdiainudala.e.telefonica.net

Baztan-Bidasoa Garapen Turistikoan lan egiteko deialdia egin du Cederna-Garalurrek.

Eskatzen da: Turismo diplomatura edo baliokidea, euskalduna izatea (frantsesa eta ingelesa menperatzea) eta Bi gida baimena. Hilaren 18ra arte auzoketza daitezke curriculumak. Argibide gehiago: www.cederna.eu/eus edo 948 20 66 97 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

SALGAI

Txantrean pisua salgai. Ezkaba plazan, 3 logela, berriak, igogailua, balkoi itxia, etab. Oso inguru atsegina eta bisita ederrak, 120.000 €. Tef 625 05 90 89

LOKALAK

ERRENTAN EMAN

Bakarrekotzea elkarteko tabernak. alokatzaren dira Bakaikuko festetarako. Irteera prezioak: taberna handiarentzako 2.000 € eta txikiarentzako 1.000 €. Interesatuek Bakaikuko Elkartean aurkeztuko dute uztailaren 3an, gaueko 22:00etan, eskaintza ekonomikoa sobre itxi batean sartuta.

Oharrak

Gure Ametsa jubilatuen elkartea. Turkiara bidaiak, irailtik 9tik 17ra, 1.200 €, mundu guztia joan daitezke. Autobusa Etxarri Aranatzetik aterako da. Izena ematea ekainaren 15 baino lehen. Informazio gehiago 636 82 71 66 Jesus Ubeda.

Iragarkilaburrak

PREZIOAK egokitu ditugu!!

3€

3 astez jarritz eskaintza berezia:
8€ (BEZ barne)

Sail berria TRUKEAK

Aralarko Deun Mikel Goiaingeruaren kofradiaren batzarra. Hilaren 21ean, igandean, eginen da, 12:30ean, meza nagusiaren ondoren. Bazkaltzera gelditu nahi duenak asteazkenera arteko epea du izena emateko.

Altsasuko Kirol Elkartean Ez Ohiko Batzar Orokorra. Ekainaren 26an izango da lortuarekin areto txikian 18:30ean ondoko gai ordenarekin: kontuen irakurketa eta onarpena; bazkideen kuota eta aurrekontuen onarpena; eta, besteak beste, hautagaien aurkezpena eta Talde Ergailearen hautaketa

Gure Esku Dago. Ekainaren 21erako Iruñeko zezen plazan antolatu duen ekitaldirako sarrerak ostiralero Altsasuko plazan salgai.

Bertso-udalekuak. Euskal Herri osoko haur eta gazteek parte hartu dezakete bertso-udalekuekin. Euskal Herriko Bertsolari Elkartek antolatzen ditu. Informazio guztia: <http://www.bertsoszale.eus/eu/bertso-udalekuak>.

Autoenplegurako laguntza. Zure lanpostua

sortu nahi baduzu Cederna-Garalurrek honako laguntza eskaintzen du: ideia aztertzea, proiektua garatzea, enpresa sortzea edota martxan dagoen jarduera sondotzea. Argibide gehiago: 948 56 70 10, sakana@cederna.es edo sakana.admon@cederna.es

Mintzakide proiektua. Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalitzen eta finantzatzatzen: <http://goteo.org/project/zu-gabe-ezin>

Nafarroako Elikagaien Bankuaren alde. Diru ekarpenak kontu korronte hauetan egin daitezke: Laboral kutxa 3035 0069 52 0690024878, Rural kutxa 3008 0001 16 0700279128 eta Caixabank 2100 2173 87 0200346965.

Euskonews ekonomikoki laguntzeko kanpaina. Informazio gehiago: www.euskonews.com/laguntza euskonews@euskonews.com, 943- 32 22 94.

3MBk kontu korrontea zabaldu du. Rural kutxan eta jendeak han egin ditzake ekarpenak 3008 0093 66 2460985811

Auzolana Josefina Arregui klinikan. Auzolanean parte hartu nahi dutenek 948- 56 38 50 (klinika) edo 689- 03 51 20 (Patxi) telefonotara hots egin dezatela.

Bazkideak Josefina Arregi klinikarako. Bazkidea izan nahi duenak urtean 12 € edo nahi duen kopurua eman dezake. Informazio gehiago: amigosfosefinaarreguilagunak.blogspot.com edo amigosfosefinaarreguilagunak@gmail.com

Eskuratu zure belexeguaixeko txartela. 50€ko kuota urtean eta deskontu eta abantaila paregabeak betirako. Deitu 948 564 275 eta izena eman edo bete formularioa gure webgunean www.guaixe.eus.

Nafarroako Ondarearen Defentsarako Plataforma laguntzeko. Eliza katolikoak,

Iruñeko eta Tuterako Elizbarrutiaren bidez, Nafarroako herrietan egiten ari zen ondare publikoaren inmatkulazioei aurre egiteko sortu zen. Egoitza Iruñeko Estafeta kaleko 57. zenbakian dago. Liburua argitaratu dute, hitzaldiak eman. Laguntza jasotzeko ondoko kontu korrontea zabaldu dute Nafarroako Kutxan: 2054/0142 68 9152623199.

Lugorri produktu ekologikoen elkartea eta denda. Sakana produktu ekologikoa zuzenean eskuratzeko gunea da Lugorri, inguruko nekazari eta abeltzainekin harremanetan jarritz edo hornitzaile desberdinei eskatuz. Bertako eta urtaroko produktu ekologikoen alde egiten du Lugorri. Lugorriko partaide egiteko 50 euroko kuota bakarria eskatzen da. Lugorriko Lakuntzako dendan (Mankomunitatearen parean) salgai dagoena: fruta, barazkiak, ogia, ardoa, olio, gazta, arroza, pasta, galletak, txokolata, haragia, behi esne eta esne begetalak, ezti, arrautzak, garagardoa, lekaleak, ozpina... Informaziorako: 656 711 130 (Gorka).

Herrialde behartsuak laguntzeko Etxarriko boluntarioen kanpaina. Haietan premiazkoak direnak, eta Etxarri jasotzen direnak: udako arropa eta oinetakoak; sehasak; ohe arropa; esku oihalak; sukaldeko tresneria; idazteko makinak; ordenagailuak; kanpin dendak... Nora eraman: Etxarriko Eliz korta kalera, gazte txeko ondora, irratia zegoen tokira, astelehen eta asteazkenean. Harremanetarako: 948 460 804 edo 948 460 875 telefonoak.

Kultur bitartekaritza+ itzulpen zerbitzua Sakana. Sakana Mankomunitateko Immigrazio Zerbitzua martxan jarria, etorkinekin harreman zuzenean ari diren profesionalak, eta baita etorkin berriei ere, bai ahozko nola idatzizko itzulpen zerbitzua eskaintzeko. Eskaintzen dena: itzulpenak bai frantsesera nola arabierara, eta hizkuntza ezberdinak direla medio, sor daitezkeen gatazken aurrean bitartekaritza zerbitzua.

JAIOTZAK

- **Yassine El Mazini,** maiatzaren 28an Olaztin.
- **Adrian Fernandez Taboada,** maiatzaren 29an Altsasun.
- **Irene Negredo Hualde,** maiatzaren 31n Altsasun.
- **Arhane Jauregi Sanchez,** ekainaren 6an Etxarri Aranatzan.

EZKONTZAK

- **Gorka Unamuno Mendiluze eta Amaia San Migel Andonegi,** ekainaren 6an Altsasun.
- **Eneko Larraioz Herranz eta Erkuden Urteaga Rubio,** ekainaren 6an Altsasun.

HERIOTZAK

- **Sagrario Adrian Amestoy,** ekainaren 10ean Lizarragan.
- **Martin Lazkano Azpiroz,** ekainaren 4an Lakuntzan.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

9:00etatik 10:30era osasun zentroetan, 11:00etatik 12:30era ikastetxeetan eta 13:00etatik 14:30era gizarte zerbitzuetan. Astelehenean Etxarri Aranatzan, asteartean Irurtzunen eta ostegunetan Altsasun. Aurretik txanda eskatu 648 07 07 10 edo immigrazioa@sakana-mank.com posta elektronikoz.

PILOTA

TUTERAKO ESKOLA LAKUNTZAN: Tuterako Pilota Eskolako kideak igandean Lakuntza hurbilduko dira, Lakuntzako eskola-

koekin topaketa egitera. Igande goizean makina bat pilota partida jokatuko dituzte bi klubetako pilotariek.

Irristaketa

Urrezko bi domina Fernandezendako

Iruñeak Espainiako Irristaketa Abiadurako txapelketa hartu zuen asteburuan. Joseba Fernandez iturmen-diarrak urrezko bi domina kolkoratu zituen, 200 metroko erlojupekoan eta 500 metro sprintean.

UNAI VILLALOBOS 4.A ESPAINIAKO PISTA TXAPELKETAN

Barañainen Espainiako Irristaketa Pista Txapelketa jokatu ziren berriki. Lagunak taldean dabilen Unai Villalobos altsasuarra laugarrena bukatu zuen hurren mailako sailkapen orokorrean, hirugarrena sailkatu zen Rafael Heredia kataluniarrengatik puntu eskas batera. Sakana Irristaketa Taldeko Ander Chamorro 17.a sailkatu zen.



Pilota

San Ferminetako lau t'erdia Altsasun hasiko da



Jaunarena eta Ezkurdia, artxiboko irudi batean.

Ezkurdiak Jaunarena izango du aurkari gaur, ostiralean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan (ETB1)

Buruzburuko finala oraindik jokatuko gabe dagoela –garagarriaren 28ra atzeratu da finala, Bengoetxea mina hartuta dagoelako– San Ferminetako lau t'erdiko torneoan murgilduko gara. Torneoa Altsasun hasiko da, gaur, ostiralean. Aspeko

adarraren barruan, Joseba Ezkurdia Jon Jaunarena izango du aurkari gaur 22:00etan Burunda pilotalekuan hasiko den lehian (ETB1).

Jaunarenaren eta Ezkurdien arteko lehia latza espero da. Partida irabazten duenak Retegi Bi izango du aurkari. Ostiraleko irabazlearen eta Retegi Biren arteko lehian gailentzen denak Juan Mar-

Altsasuko pilota jaialdia

Gaur, ostiralean, 22:00etan, Burunda pilotalekuan
Aurrez: Jaka-Tolosa/Irribarria-Irusta
San Ferminetako lau t'erdia: Jaunarena / Ezkurdia

Sarrerak

Salgai daude aurrez (661 259 009, Olaia) edo bestela Burunda pilotalekuko txarteldegian.

tinez de Irujo izango du zain. Irabazleak San Ferminetako lau t'erdiko final handia jokatu du Asegarceren adarraren kontrako pilotariaren kontra.

Pilota

Olaztiko San Migel XLIV. Pilota Txapelketa: 6. jardunaldia jokoan

Asteburuko emaitzak:

4 1/2:
 Berat **9** / Abraham **18**
1. maila:
 Iurgi-Javier **12** / Adur Mikel **18**
22 urtez azpikoak:
 Ansa-Otamendi **22** / Berastegi-Pagaza **19**
3. maila:
 Alustiza-Gonzalez **18** / Urtzi-Grados **11**
 Iñaki-Ibon **18** / Ieregi-Mundiñano **0**
1. maila:
 Martinez-Flores **14** / Javi-Aies **18**
 Joseba-Unai **17** / Urteaga-Lauzirika **18**

Asteburuko partidak

Ostiralean, 20:00etan
4 ½: Eneriz / Etxeberria
2. maila: Muñoz-Insusti / Gonzalez-Diaz de Gereñu
1. maila: Adur-Mikel / Etxague-Lopetegui
22 urtez azpikoak: Sevilla-Candela / Gartzia-Kintana
Larunbatean, 17:00etan
3. maila:
 Iñigo-Ernesto / Asier-Victor
 Lauzirika-Irisarri / Zubiria-Sergio
1. maila: Zelaia-Alustiza / Nogueira-Sueskun

Botxa

Iratxo Botxa Txapelketan lehen fasea despeditzear

Asteburuko emaitzak:

Ferotx **3** / Tirillas **15**
 Desesperados **3** / Lirainak **15**
 AHTrik ez **15** / Xabier-Miguel-Txutxurrin **10**
 Jordano-Guill.-Iñigo **15** / Asentsio-J. Jav-Manolo **0**
 Ferotx **7** / Desesperados **15**
 Javier-Xabier-Erik **15** / Tirillas **1**

Asteburuko partidak

Ostiralean

19:00etan: Javier-Xabier-Erik / Lirainak
20:15ean: Tximeleta / Asentsio-Jose Javier-Manolo
Igandean
20:00etan: Tirillas / Lirainak
21:15ean: Xabier-Miguel-Txutxurrin / Asentsio-Jose Javier-Manolo

Frontenisa

Sakanako Emakumeen Frontenis Txapelketa jokoan

3. jardunaldiko emaitzak:

Andrea-Izar **25** / Irati-Oihane **14**
 Ane-Uxue **25** / Leo-Maider **17**
 Arantxa-Esther **3** / Jone-Amairu **25**

4. jardunaldia

20:00etan, Etxarriko frontoian:
 Irati-Oihane / Arantxa-Esther
 Jone-Amairu / Ane-Uxue
 Leo-Maider / Andrea-Izar

>>

Zabaleta lesionatuta dago eta uda guztia galduko du

Esquin txorkatilan ebakuntza egin diote

Jose Javier Zabaleta pilotariak uda guztia osatzen eman beharko du. Etxarrengo atzelariari ebakuntza egin behar izan diote, eskuin hankako txorkatilaiko tenoian kaltzifikazio bat zuelako.

Zabaletak Aspeko web gunean adierazi duenez, oinazeak Binakako finalerdietako ligaxkan hasi ziren. "Oingainean oinazea sentitu nuen. Bendajearekin jokatu nuen baina oinazeak ez ziren joaten. Ezkurdiak eta biok ez genuen

finalerako sailkatzea lortu eta oinazeekin jarraitzen nuenez, geldialdia egitea erabaki nuen" azaldu du pilotariak. Baina geldialdiak ez zuen arazo konpondu eta kirofanotik pasatzea erabaki zuen. "Aurreko ostegun arratsaldean egin zidaten ebakuntza eta ongi ateratu da. Ezin dut hanka lurrean jarri eta makuluak erabili behar ditut. Berehala mugikortasuneko ariketekin hasiko naiz eta medikuek esan didate hiruzpalau hila-bete bajaran egon beharko dudala" gaineratu du pilotariak.



Baja garrantzitsua da

Udan makina bat festibal egoten dira eta Zabaletaren baja ederki nabaritu du Aspeko. Zabaletari ere pena ematen dio udako torneoetan ez aritzeak. "Pilotariei asko gustatzen zaizkigu udako torneoak, baina nire helburua ongi errekuperatzea da, hurrengo denboraldia topera hasteko" azaldu du.

>>

Nafarroako txapelkunak gurean

Lakuntza-Imaz, Cercadillo-Senar, Lazkoz-Otxoa, Senar-Astiz eta Arbizu-Ramirez de Alda txapelkunak izan dira eta Jaka-Ganboa txapelkunordeak

Asteburuan Nafarroako Kirol Jolasen Nafarroako Pilota Txapelketako 3. faseko finalak jokatu ziren hainbat kategoriatan eta pilotari sakandarrek makina bat txapela ekarri dituzte gurera. Asteartean, aldiz, Nafarroako Kirol Jolasetako Nafarroako Pilota Txapelketako azken faseko benjamin mailako finala jokatu zuten Aldabideko Xabier Lakuntzak eta Iratiz Imazek. Finalan Paz Zigandako Maizari eta Retegiri 18-14 irabazi zieten. Zorionak guztiei!

Nafarroako Pilota Txapelketako 3. faseko finalak:

Benjaminen 3. maila:
 Alzueta-Campanon (Zugarralde) **17** / Cercadillo-Senar (Lakuntza) **18**

Kadeteen 3. maila:
 Lazkoz-Otxoa (Gure Pilota) **22** / Arbizu-Malharin (Berriozar) **12**

Haurren 1. maila
 Ariztegi-Ballarena (Txaruta) **18** / Jaka-Ganboa (Gure Pilota) **11**

Haurren 2. maila
 Ariztegi-Azpiroz (Paz Ziganda) **6** / Senar-Astiz (Gure Pilota) **18**

Jubenilen 2. maila
 Iriarte-Zenoz (Buruzgain) **4** - Arbizu-Ramirez de Alda (Pilotajauku) **22**

Nafarroako Pilota Txapelketako bukaerako faseko finalak:

Benjaminak:
 Lakuntza-Imaz (Aldabide) **18** / Maiza-Retegi (Paz Ziganda) **14**



Aldabideko Lakuntza eta Imaz.

Futbola

Altsasuko jubenilei hankaz gora jarri zaie igoera fasea

Jubenil mailako Altsasu taldea bigarren mailatik lehen mailara igotzeko igoera fasea jokatu ari da. Asteburuan Ardoi izan zuten aurkari Dantzalekun. Partida Zizurrek 4-6 irabaziz Altsasuri. Sailkapen orokorrean Lourdesek 12 puntu ditu, Ardoi 9 eta Altsasuk eta San Migelek 4. Asteburu honetan San Migelen kontra ariko da Altsasu, ia aukerarik gabe.

Motoziklimoa-Enduro**Motor festa Irañetan**

Bihar Irañetako Enduro lasterketa jokatu da, 15:30ean

Biharko, larunbaterako, Irañetako Enduro proba antolatu du Moto Club Ziki Team taldeak, 15:30ean. Enduroak motokrossaren abiadura eta triatlaren teknika nahasten ditu. Txapelketa senior, junior eta beterano mailatan jokatu da.

Triatloia**Sakandarrak Aritzalekun**

Mikel Lakuntza 114.a sailkatu zen distantzia olinpikoan (2:44:08)

Larunbatean III. Aritzalekuko Triatloia jokatu zen Lerateko Aritzaleku kanpin-gaan. Helduen mailan bi distantzian jokatu zen proba, sprintean (750m igerian, 20,5 km bizikletan eta 5 km korrikari) eta distantzia olinpikoan (1,5 km igerian, 41 km bizikletan eta 10 km korrikari). Distantzia Olinpikoan Raul Amatriain gailendu zen (2:11:49). Sakana Triatloia Taldeko Mikel Lakuntza 114.a izan zen helmugan (2:44:08).

**KATEGORIA TXIKIAK**

Nafar Kirol Jolasetan Sakana Triatloia Taldeko kideek lan polita egin zuten. Aurribenjaminetan Alain Razkin lehena izan zen (6:02) eta Ekain Imaz bigarrena (6:23), eta benjaminetan Egoi Lakuntza laugarrena sailkatu zen (10:40). Kimuei dagokienez, emakumezkoetan Nahia Imaz 18.a izan zen (23:24) eta gizonezkoetan Xabier Borrega 17.a (19:11).

Areto futbola**Maisuenea gaztetxearen futbito txapelketa**

Olaztiko Gazte Asanbladak, Olaztiko Udalaren laguntzarekin, Maisuenea gaztetxearen futbito txapelketa antolatu du. Asteburu honetan bigarren jardunaldia jokatu da,

2. jardunaldia**Larunbatean**

11:00etan: O.G.A - Piper Creew
12:00etan: Kaimanak - Petete Crew
13:00etan: Celtic - Dinamo
16:00etan: Bunker - Bakaiku
17:00etan: Arbizu - Bayer Marocco
18:00etan: AllStar - Leones del Atlas

IRURTZUNGO 12+12 ORDUKOA BERTAN BEHERA

Asteburu honetan zen jokatzekoa Irurtzungo 12+12 orduko areto futbito txapelketa, baina antolakuntza-kidiek adierazi dutenez, ez du talde nahikorik izena eman eta bertan behera gelditu da aurtengo txapelketa.

Parapentea**Hegan**

Parapentean salto egiteko unea. CARLOS ANTOÑANZAS DE ANDRES

Sakana Parapente Egunean parapentelariak ez zuten huts egin

Baiza Parapente Taldeak larunbatean antolatutako Sakana Parapente Eguna arrakastatsua izan zen, beste behin. Nahiz eta eguraldia nahiko triste esnatu, parapentelariak ez zuten etsi eta Santa Marinara igo ziren, oinez. Sakanako parapentelariak beste tokietatik etorritako hainbat lagun gehitu zitzaizkien, eta 100 parapentelari baino gehiagok eman zuten izena festan. Parapententarako material guztia, jakina, furgonetaz igo zuten.

Eta goiko lainoari aurre eginez hasi ziren lehendabiziko hegaldiak, Santa Marinatik. Egun osoan barna zerura begiratu eta parapentelariak hegan ikusteko aukera izan zen.

Baizak Iturmendin lokala prestatu zuen, guztiek zer jan eta edan izan dezaten. Bilgune polita izan zen. Eta arratsalde gau partean festak Altsasun jarraitu zuen. Il Padriño jatetxearen ondoan Oztopo taldeak kontzertua eskaini zuen eta eguna despeditzeko afaria eta opari-zen zozketa izan ziren.

Gimnasia erritmikoa**Gimnasia erritmikoko campusa antolatu du Iskizak**

5 txanda izango dira, garagarriaren 22tik irailaren 4ra bitartean

I. Iskiza Sakana gimnasia erritmikoko campusa antolatu du Iskizak udarako. Campusa gimnasia erritmikoa gustuko duten 6 urtetik gorako Sakanako neska-mutikoei zuzendua dago, udako aisialdiko une bat gimnasia erritmikori eskaini nahi diotenei.

Bost txanda

Campusa ekainaren 22tik irailaren 4ra bitartean gauzatuko da, 5 txandatan: lehena, garagarriaren 22tik 26ra bitartean, bigarrena, garagarriaren 29tik irailaren 3ra bitartean, hirugarrena irailaren 20tik 24ra, laugarrena irailaren 27tik

31ra eta azkena agorriaren 31tik irailaren 4ra bitartean. Ordutegiari dagokionez, astelehenetik ostiralera izanen da txanda bakoitza, 9:00etik 14:00etara, Altsasun. Txanda bakoitza ateratzeko gutxienez 10 neska-mutikok eman behar dute izena. Iskiza klubeko gimnastek 60 euro ordaindu behar dituzte txanda bakoitzeke, eta gaitzetzekoek 75 euro. Egun bakoitzeke, aldiz, gimnastek 14 euro pagatu behar dituzte eta gaitzetzekoek 17 euro. Txanda batean baino gehiagotan izena ematen dutenek %10eko deskontua izango dute eta anai-arreba batek izena ematen badu %10eko deskontua egingen zaie ere.

Futbola**Danok Bat Etxarriko Torneoko txapeldun**

Kadeteen mailako Etxarri Aranatz Torneoa arrakastatsua izan zen

Beste behin arrakastatsua izan zen Etxarri Aranatz Kirol Elkarrekin larunbatean antolatutako kadeteen mailako futbol torneo. Puntako 6 talde lehiatu ziren, bi multzotan: A multzoan Errealak, Pamplona eta Etxarri Aranatz, eta B multzoan Osasuna, Danok Bat eta Tolosa. Lehenik eta behin multzo bakoitzeko taldeak elkarren kontra aritu ziren eta, ondo-

ren, A taldeko lehena B taldeko bigarrenaren kontra lehiatu zen, B taldeko lehena A taldeko bigarrenaren kontra eta hirugarrenak, laugarrenak, bosgarrenak eta seigarrenak elkarren kontra. Azkenean, Bizkaiko Danok Bat izan zen txapelduna, Osasuna, Pamplona, Errealak, Etxarri Aranatz eta Tolosaren aurretik. Torneo gauzatu bitartean kamisetak eta beste zozketatu ziren eta primerako giroa izan zen.



Danok Bat taldeko futbolariak, txapeldunaren trofeoa jaso ostean.

Izena emateko

cdiskiza@hotmail.com posta elektronikoa edo 677 718 699 (Cristina) telefonoan emango dituzte argibide guztiak.



Iskizatik adierazi dutenez, ondoko atalak landuko dituzte: gimnasia erritmikoko aparatua, elementu akrobatikoak, zumba, tailer ezberdinak -makillajea, kamisetak eta abar-, igerilekuak (ostiraletan), dantza klasikoak, presaketa fisikoak eta jokoak. Ondoko materiala behar dela gaineratu dute: kirol arropa eta oinetakoak, ur botila eta igerilekuetarako jantziak -bainujantzia, txankletak, toalla eta eguzkitako krema-. Matrikularen prezioaren barruan jasotzen dira entrenamenduak, aseguruak, hamaiketakoak, instalazioak, kamiseta eta igerilekuetara joateko sarrera.

HIJOS DE GOIKOETXEA

EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotegia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

Ogiaren artisauek

PORTUKO
okindegia

Espelta ogia egiten dugu. Aurretik eskatu!

ETXARRI ARANATZ: 948 460 988
ALTSASU: Denda: 948 563 822 · Lantegia: 948 467 153

Atletismoa

Agirre eta Beunza garaile Ziordian



Korrikalariak proba nagusiaren hasieran.

77 korrikalarik osatu zuten Ziordiko II. Herri Kroseko proba nagusia

Running Ziordia taldeak antolatutako Ziordiko II. Herri Krose jokatu zen igandean. Lehenik eta behin, kategoria txikiko lasterketen txanda izan zen -77 neska-mutiko aritu ziren guztira-, eta eguerdian abiatu zen nagusien proba (6,8km). Korrikalariak Ziordian antolatutako zirkuitu ederrari hiru buelta eman behar izan zizkieten. Sakanako Atletismo Koparako Baliagarria zen bigarren lasterketa izan zen Ziordikoa.

Izena ematea dohain zen, eta horren truke elikagaiak ekartzeko gonbitea egin zieten antolatuzaileek korrikalariei, Paris 365 jantoki sozialerako jaki bilketa egin baitzuten. Eguerdiko bero sari aurre eginez, 95 korrikalari zeuden izena emanda proba nagusian, eta horietatik 77 sailkatu ziren. Andoni Agirre zumaia-rra (24:24) eta Izaskun Beunza olaztiarra (28:34) izan ziren azkarrenak. Bigarrena Sergio Garcia de Eulate izan zen, irabazlearengatik 24 segundora (24:48). Iban Gonzalezek osatu zuen podiuma (24:57). Emakumezkoetan, Izas-



Emakumeen podiuma.

kun Beunza txapeldunarengatik 2 minutu eta 12 segundora sartu zen Karmele Ormazabal (30:22), eta Ginesa Lopez altsasuarra hirugarrena izan zen (31:50). Hasieratik multzoa osatu zuten Agirrek, Garcia de Eulatek eta Gonzalezek, baina zirkuituko bigarren itzuliko igoeran zumaia-rrak eraso jo zuen eta gainontzekoekin ezin izan zioten jarraitu.

Bukaeran auzatea izan zen elkartean eta bertan burutu zen sari ematea. Lehen sailkatutakoekin trofeoak jaso zituzten eta izena aurretik eman zuten artean hainbat produktuen zozketa egin zen. Korrikalari guztiek Nafarroako Odol Emaileen oparia jaso zuten.

Ziordiko II. Herri Krose:

1.	Andoni Agirre	24:24
2.	Sergio Garcia de Eulate	24:48
3.	Iban Gonzalez	24:57
4.	Javier Borrega	25:20
5.	Adur Senar	25:26
6.	Jorge Sanza	25:42
7.	Javier	25:53
8.	Michel Ventureira	26:17
9.	Gorka Garcia de Eulate	26:40
10.	Iker Flores	26:48
11.	Gaizka Martinez de Albeniz	27:40
12.	Anderson Teodoiro	27:43
13.	Roberto Sainz	27:49
14.	Urko Agirre	27:51
15.	Juan Carlos Gomez	27:55
16.	Aritz Garcia	28:11
17.	Iñaki Alvaro	28:20
18.	Urko Gorrotxategi	28:21
19.	Lourival Alexandre	28:32
20.	Izaskun Beunza	28:34
21.	Martin Somocurcio	28:38
22.	Juantxo Azurmendi	28:38
23.	Ion Zubiria	28:38
24.	Antonio Vilares	28:48
25.	Santi Otazu	28:56
26.	Santi Agirre	29:14
27.	David Trevejo	29:32
28.	Jesus Gorjon	29:39
29.	Xabier Aierdi	29:48
30.	Jose Ramon Ramirez	29:52
31.	Sergio Goñi	30:15
32.	Karmele Ormazabal	30:22
33.	Juan Pedro Ariz	30:24
34.	Iurgi Flores	30:35
35.	Jon Kortazar	30:56
36.	Iñaki Kortazar	30:56
37.	Iñaki Gallego	31:06
38.	Jonathan Higuero	31:12
39.	Borja Gonzalez	31:14
40.	Ruben Izko	31:16
41.	Juanjo Otsoa	31:25
42.	Ginesa Lopez	31:50
43.	Jose Luis Garcia	31:57
44.	Fernando Montero	32:19
45.	Leandro de Jesus Camargo	32:34
46.	Luis Rabanera	32:34
47.	Amaia Etxeberria	32:49
48.	Roberto Martil	32:49
49.	Edson Antonio Figueira	33:33
50.	Alfonso Mateu	33:39
51.	Ismael Lpz. de Goikoetxea	33:43
52.	Naroa Garmendia	33:44
53.	Jose Mari Bello	33:45
54.	Gotzon Plazaola	33:47
55.	Luis Angel Diaz	34:49
56.	Maite Zabaleta	34:51
57.	Rebecca Peña	34:58
58.	Roberto Bejar	34:58
59.	Anton Etxebarrieta	35:05
60.	Raul Mendoza	35:22
61.	Victor Salguero	35:40
62.	Ainara Mendoza	36:45
63.	Emilio Carabias	37:10
64.	Jesus Sayas	37:10
65.	Oier Larunbe	37:10
66.	Francisco Javier Navarrete	37:22
67.	Danielo Augusto Siqueira	37:22
68.	Ibon Ruiz de Erentxun	39:02
69.	Iñaki Anega	39:02
70.	Jose Luis Arevalo	39:56
71.	Xabier Amaro	40:49
72.	Mari Carmen Zalbidea	42:59
73.	Sergio Martis	44:21
74.	Maria Jimenez	45:03

Txirrindularitza

Iturmendin erlojuaren kontra

Igandean, 10:30etik aurrera jokatu da III. Iturmendi Erlojupeko Trofeoa, Nafarroako kadeteen eta juniorren txapelketa

Txirrindulariak banaka-banaka lanean ikusteko aukera eskainiko du Iturmendik igandean, Burunda Txirrindularitza Klubak antolatutako III. Iturmendi Erlojupeko Trofeoa baitago jokoan. Proban kadete mailako eta junior mailako txirrindulariek hartuko dute parte eta Nafarroako Erlojupekoko Txapelketa izango da.

Goizeko 10:30ean abiatuko dira kadeteak. 10 km osatu beharko dituzte. Iturmenditik Etxarri Aranzteraino joko dute, han buelta hartu eta atzera ere Iturmendiraino iristeko. 12:30etik aurrera juniorrak ariko dira lanean. Kasu honetan, 14 km izanen dituzte aurre eta Arbizuko industrialde-raino iritsiko dira.

Maila erakustera

Aurreko urtean gizonen kadete mailan Quesos Albenizeko Asier Etxeberria hirugarrena sailkatu zen eta emakumezkoen kadete mailan Caf taldeko Maialen Aramendia iturmendiarrak txapeldunordea izan zen. Jubeniletan Quesos Albenizeko Eneko Aramendia txapeldunordea izan zen. Ea aurreko zein lan egiten duten beraiek eta Quesos Albenizeko eta Intersport Irabiako gainontzeko kideek.

Eneko Aramendia Euskal Herriko junior mailako erlojupeko txapeldunordea

Larunbatean junior eta afizionatuen mailako Euskadiko Erlojupeko Txapelketa jokatu zen Caparrosen. Juniorrek 16 km osatu behar izan zituzten. Autonervion-Renault taldeko Iñigo Elosegia izan zen azkarrena (20:50). Quesos Albeniz taldeko Eneko Aramendia iturmendiarrak bigarrena sailkatu zen, 47 segundora.

Maialen Aramendia Euskadiko Erlojupeko txapelduna



Igandean Euskadiko Erlojupeko Txapelketa jokatu zen Orduñan. Elite mailan Lourdes Oiarbide gailendu zen, junior mailan Eukene Larrarte eta kadeteetan CAF Transport Engineering taldeko Maialen Aramendia. Kadeteetan 13 km osatu behar izan zituzten, eta iturmendiarrak egin zuen denbora onena (17:40). Bizikleta.com taldeko Luisa Ibarrola bigarrena izan zen, 8 segundora, eta Rural Kutxa-Bide Bideko Nekane Gomez hirugarrena, 31 segundora.

Afizionatuetan Rural Kutxa talde sakandarrak 4 garaipen lortu ditu. Cristian Rodrigezek Andaluziako 23 urtez azpiko erlojupekoa irabazi zuen, Josu Zabalak 23 urtez azpiko Nafarroako erlojupekoa, Victor Etxeberria 23 urtez azpiko lasterketa eta Marcos Altur Valentzian.

Josu Etxeberria 3.a Urretxun Kadeteek larunbatean lasterketa izan zuten Urretxun.

Quesos Albenizeko Josu Etxeberria 3.a izan zen eta mendiko saria irabazi zuen. Hodei Zia 24.a sailkatu zen. Juniorrek, berriz, Seguran jokatu zuten eta Quesos Albenizeko Asier Etxeberria 6.a sailkatu zen, Juan Alberto Jimenez 34.a eta Aritz Irigoien 39.a. Eskoletakoak Lekunberrin aritu ziren eta sakandarrek maila bikaina eman zuten.

Yoseikan Budoa

Yoseikan Budoa erakusten

Astelehenean Txuixoo elkarteak erakustaldia egin zuen Altsasun. Uztailerako yoseikanpaldia antolatu dute Uitzin

Astelehenean Txuixoo elkarteak yoseikan budoko Altsasuko taldeko ikasleek yoseikan budo erakustaldia egin zuten Altsasuko Burunda pilotalekuan. Jende dezente hurbildu zen. Hurrengo urteetan Arbizuko taldeko ikasleekin ere erakustaldia egiteko asmoa azaldu dute.

Uztailerako yoseikanpaldia

Yoseikan budoren onurak asko direla diote. Besteak beste, gorputz mugimenduaren kontrola, nortasun pertsonalaren garatzea eta, garrantzitsuena, alaitasuna. Txui-



xook udan yoseikanpaldia antolatu du, duela urte batzuk egin zen bezala. Uztaileraren 10ean, 11n eta 12an izango da, Uitzin. Kanpaldi honek Euskal Herriko beste yoseikan budo klubekin bateratzeko aukera eskainiko die 6 eta 13 urte bitarteko neska-mutikoei.



Ainara Martin bigarrena Lasterbidean

Presoen eskubideen aldeko lasterketan 20 sakandar baino gehiago aritu ziren

20 sakandarrek baino gehiagok hartu zuten parte igandean Berrizarren jokatuako III. Lasterbidean herrilasterketan. Errepresaliatu eta presoen eskubideen aldeko lasterketan ia mila pertsonak hartu zuten parte, 620 korrikalarik proba nagusian (8 km) eta gainontzekoekin 3 km-ko proba laburrean. Eta jendetza bildu zen korrikalari guztiak animatzera. Sariak presoen egindako esku lanak izan ziren. Atarratze Errota (29:03) eta Itsaso Oloriz (38:17) izan ziren garaileak. Ainara Martin arruazuarrak (39:03) lan bikaina egin zuen eta bigarren



Ainara Martin eta Maria Goikoetxea.

emakumea izan zen. Anabel Arraiza lakuntzarra izan zen probako aurkezleetako bat.

Sakandarrak III. Lasterbidean:

1.	Atarratze Errota	29:03
13.	Alatz Agirre	32:06
15.	Julen Paniagua	32:25
16.	Iñigo Tobar	32:27
17.	Ion Iñaki Araña	32:29
32.	Asier Reparaz	35:19
38.	Juan Mariñelarena	35:43
45.	Iñaki Romero	36:17
85.	Aingeru Azazeta	38:50
89.	Ainara Martin	39:03
116.	Asier Urkia	40:34
118.	Alain Iriarte	40:35
119.	Maria Goikoetxea	40:38
134.	Unai Razkin	40:59
135.	Haizea Ramirez de Alda	41:00
246.	Joxe Aldasoro	45:06
247.	Arturo Carreño	45:14
256.	Mikel Ibero	45:45
265.	Hasier Beltza	46:03
292.	Bel Pozueta	47:27
316.	Xabat Goikoetxea	48:51
413.	Orreaga Zubeldia	52:20

Mendia



Transantartika Etxarrin

Mikel Zabalza mendizalea Iñurrategirekin eta Vallejorekin egindako espedizioaz mintzatuko da gaur, 20:00etan, Kultur Etxean

Mikel Zabalzak, Alberto Iñurrategik eta Juan Vallejok Naturgas /BBK Transantartika 2011 espedizioa burutu zuten, Basque Teamekin. 2011ko udaberrian, zero azpiko 30 graduko tenperaturei aurre eginez, 2.300 kilometrogin zituzten 32 egunetan Groenlandiako ordoki izoztuan zehar, kanpo laguntzarik gabe. Zama leren bidez eraman behar izan zuten, arrastaka, haizea zegoenean kometen laguntzarekin. Eta 2011ko azararen hego polora joan ziren, azaleraren %95 izotzez estalia duen kontinente honetan 3.700 km-ko zeharkaldia egiteko asmoz. Mota guztietako zailtasunei aurre eginez –eguraldia, ekaitzak, haizea eta beste–, espedizio hau ere arrakastaz gauzatea lortu zuten, kanpoko laguntzarik gabe, 55 egunetan. Zero azpiko 35 graduko tenperatura maximoa izan zuten. Materiala leran eraman zuten, kometek lagunduta. Bi espedizioak sufrikario latzak izan ziren. Mikel Zabalzak horren guztiaren berri emanen du gaur, ostiralean, Etxarriko kultur etxean.

Mendi lasterketak

Juanjo Goikoetxea 19.a Camille Extremen

Hassan Ait Chaou eta Oihana Kortazar gailendu ziren

Igandean eta beroa nagusi zela jokatu zen XI. Camille Extreme lasterketa ezaguna Izaban. 443 mendi korrikalarietatik 356k despiditu zuten 31,6 km-ko proba gogorra (2044 m desnibel+). Tartean, korrikalariak Ezkaurre (2.047 m) igo behar izan zuten. Azkarrenak Hassan Ait Chaou (3:05:36) eta Oihana Kortazar (3:35:36) izan ziren. Sakandarraren artean Juanjo Goikoetxea izan zen azkarrena. Uhartearra 19.a izan zen helmugan (3:37:39) eta Iñaki Martiarena 24.a (3:40:47). Gainontzeko sakandarrak 3 ordu eta 55 minutu baino gehiago behar izan zituzten.

Sakandarrak XI. Camille Extremen (31,6 km):

1.	Hassan Ait Chaou	3:05:36
19.	Juanjo Goikoetxea	3:37:39
24.	Iñaki Martiarena	3:40:47
47.	Fidel Jimenez	3:55:26
49.	Santi Galarza	3:56:05
99.	Beñat Katarain	4:11:58
108.	Mikel Iriarte	4:14:53
113.	Ibai Goñi	4:15:51
115.	Alberto Goñi	4:16:16
130.	Aitor Larraza	4:21:07
145.	Fran Araña	4:25:15
227.	David Oroz	4:52:32
248.	Mikel Satrustegi	4:58:18
249.	Joseba Satrustegi	4:58:19
258.	Fermin Zornoza	5:01:19
317.	Gorka Arratibel	5:25:23

Mendi lasterketak

Lakuntza-Aralar: dena prest

Igandean jokatu da mendi lasterketa, 9:30ean (24,7 km)

Lakuntzako Zabalarte Mendi Kluba Lakuntzako Udalaren eta hainbat entitatearen laguntzarekin antolatuta –Muga, Lakuntzako Pertza, Surya, Sakana Kooperatiba, Lacunza eta Saprem tartean–, igandean, hilak 14, 12. Lakuntza-Aralar mendi lasterketa jokatu da. Antzina-ko apustueta oinarrituta sortuzen Guardetxeko igoera lasterketaren tokia hartu zuen proba, ibilbidea luzatuz. Lasterketa Nafarroako Mendi Lasterketen Zirkuiturako baliagarria izango da. Gaur despidituko da izena ematea, www.lakuntza-aralar.com orrian, eta erredakzioa ixteko garaian 115 korrikalari zeuden izena emanda. Aurreko urtean Aritz Egea (1:58:05) eta Sandra Sevillano (2:26:30) izan ziren irabazleak, 163 korrikalariaren artean.

Aranguneko portutik jaitsi

Aralarko bihotzean burutuko da lasterketa (24,7 km, 1.114 m desni-

bel positiboa). Korrikalariak 9:30ean abiatuko dira Lakuntzako plazatik. Atazarko igoeratik Guardetxera igoko dira (1.035 m), antzina-ko galtzadatik pasaz. Guardetxetik Albi eta Mugerdin barneratuko dira, Belokiko lepora joz (1.205 m) eta handik zuzen Unako putzura ailegatuz, gero Hirumugarrietako tontorrera (1.431 m, Aralar-ko tontorrik altuena) iritsi arte. Ondoren Lakuntzarako bidea hartuko dute Desako borda eta Pagomari (1.140 m) atzean utzita. Aurreko urteko aldaketei jarraiki, Sandindegitik barna jaitsi behar, Aranguneko portutik hartuko baitute Lakuntzarako bidea.

Ibilbidean barna 5 kontrol eta 4 hornidura gune egongo dira. Akaberan, ohikoa denez, masajeak hartzeko aukera eskainiko du Surya masaje eskolak. Eta, jakina, auzateerra izango da korrikalari guztiendako. Guztia behar bezala antolatuko, 80 pertsona baino gehiago ariko dira antolakuntza lanetan.



Aurreko urtean frontoitik atera ziren, baina aurten plazara itzuliko dira.

Sariak

Sari banaketa 13:15ean hasiko da. Parte-hartzaile guztiek kamiseta tekniko bat eta produktu lote bana jasoko dute. Irabazleek, gizon eta emakumeak, 250 euro, txapela eta trofeoa jasoko dituzte. Bigarrenek 100 euro eta trofeoa, eta hirugarrenek 50 euro eta trofeoa. Bes-

talde, lehen lakuntzarrek, lehen sakandarrak, lehen betaranoek, lehen juniorrek eta lehen kadetek trofeoak jasoko dituzte.

www.lakuntza-aralar.com

Lasterketari buruzko informazio guztia.

Mendi txirrindularitza

Bikerren hitzordua Altsasun

Altsasuko BTT Zeharkaldiaren 20. edizioa antolatuko du Barranka Txirrindulari Taldeak igandean, 9:00etan. Nobedade moduan bi ibilbide egongo dira: luzea, 45 km-koa eta laburra, 28 km-koa

Burunda Txirrindularitza Klubean egon den berregituraren ondoren, Barranka Txirrindulari Taldeak hartu du Altsasu BTT Zeharkaldia antolatzearen ardura. Aurten 20. edizioa beteko du BTT edo mendi txirrindularitza egutegian izen handia duen Altsasuko proba ez lehiakorrak. Eguraldiari dagokionez, ez omen dira prezipitazio handirik espero eta horrek proban ez duela eragingo uste du Barrankako kide eta Altsasu BTT Zeharkaldiko arduradun Julian Claverrek.

Izena ematea bihar itxiko da

Bihar, larunbata 12:00etaraino eman ahal da izena Altsasuko BTT Zeharkaldirako www.barrankatt.com web gunean. Guaixeko erredakzioa ixterako orduan 340 biker zeuden izena emanda. Antolakuntzak 700 bikerren parte-hartzearen muga jarri du, lehenengoz. Aurreko urtean 585 txirrindulari aritu ziren.

Altsasuko BTT zeharkaldia proba ez-lehiakorra da. Euskal Herriko egutegian finkatuta dagoen proba da, Nafarroako probetan zaharrena. Helburua, betiko moduan, gure eskualdea erakustea eta gure paisaiekin gozatzea eta bizikletarekin disfrutatzea da.

Bi aukera: 45 km eta 28 km

Sakana-Burundarako 10 euro opari



Izena ematen duten txirrindulariek hurrengo opariak jasoko dituzte: kirol kamiseta teknikoa, Laketek emandako txistorra, Katealdek emandako pateia, Lacturale esne litroa, Agrozumos etxeko produktua eta Galius etxeko eguzkitako krema. Horretaz aparte, hainbat sari zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean. Tartean 4 sari zozketatuko ditu Galius etxek: 3 saritan, proban izena emateagatik ordaindutakoa itzuliko du Galius, eta laugarren saria egokitzen zaionak Galius produktuak jasoko ditu. Bestalde, Altsasu BTT Zeharkaldian parte hartzen duten biker guztiek garagarriaren 27an Barranka taldeak antolatu duen V. Sakana Burunda zikloturista martxan parte hartzeko 10 euroko deskontuko bonoa jasoko dute. Gainera, bono hori transferigarria da, beste pertsona bati utzi ahal da.

Aurtengo beste nobedade bat da antolakuntzak bi ibilbide antolatu dituela, luzea (45 km, 804 m desnibela) eta laburra (28 km, 482 m desnibela). Altsasukoa luzeegia gelditzen zitzaienei begira antolatu dute laburragoa.

Txirrindulari guztiak goizeko 9:00etan aterako dira Altsasuko plazatik. Basomuturretik eta institutuetatik barna Ulaier eremu-

ra iritsiko dira, Lekuona parajera. Ondoren Sorozarretara joko dute, Ibarreako lehen zubira, eta kuarteleko eta biltegi zaharretik Zapardira igoko dira. Handik Olatzagutiraino joko dute, eta, berrikuntza moduan, Olatzagutia eta Ziordindagoen Batuekoko iturri-ira igoko dira. Ondoren, Ziordiraino jaitsiko dira eta Ziordiko txipudi ederrean hornidura gune

nagusia egongo da. Zubi azpitik Olatzagutira iritsiko dira eta Urbasako magaletik Altsasuraino helduko dira. Han, BM denda parean ibilbide motzekoek Altsasuko plazara joko dute, helmuga. Aldiz, ibilbide luzea egingo dutenek Urdiain eta Iturmenditik pasako dira, Bakaikura heltzeko. Bakai-kun, Guerra Hermanos lantegitik mendira igoko dira eta buelta bat eman ondoren, Iturmenditik barna Urdiaingo igerilekuetara iritsiko dira. Basoixti gainditu ondoren Otadiko Kristo Deunatik sartuko dira Altsasuko foru plazako helmugara. Ibilbidea ikusgai dago es.wikiloc.com web gunean barranka erabiltzaile jarrita.

Proban parte hartzerantz animatu dute

Antolatzaileek Altsasu BTT zeharkaldian parte-hartzerantz animatu dituzte sakandarrak, “ibilbidea ederra delako, pribilegiatua. Urterro ibilbidean berrikuntzak sartzen saiatzen gara, ibilbidea aldatzen, jendea ez aspertzeko. Eta biker guztiek eskertzen dute hori, gustatzen zaie”. Dena ongi ateratzeko egunean bertan 100 pertsona inguruk egingo dute lan. “Lan handiko eguna da, baina pozik egiten duguna” gaineratu du Altsasu BTT-ko arduradun Julian Claverrek. Nahiz eta babesle batzuk joan gehiago hurbildu dira eta aurten proba antolatzeko 35 babesle inguru dituzte, inoiz baino gehiago. “Oso kontentu gaude” adierazi du Barranka Txirrindulari Taldeko kideak.

Erljio musika, kantu eta hariz Martxan da Arakilgo argazki lehiaketa



Egitaraua

Erkudengo Ama

Kirye de la misa criolla
Oh quam suavis est
Ama Birjiña

Ave María Guarani (E. Morricone)

Erkudengo Ama eta Ariadna laukotea

Signore de le Cime
Exaltabo te Domine
Tu es Petrus
Ave Verum

Ariadna laukotea

Gabriele's Oboe (E. Morricone)

Erkudengo Ama eta Ariadna laukotea

Aita Gurea
Tebe Poem
Bogoroditse, Ave Maria
Querubing song

Erkudengo Ama abesbatzak eta Ariadna laukoteak kontzertua eskainiko dute larunbatean, 20:45ean, Altsasuko elizan

Musika sakroaren edertasuna erakusteko asmoz Erkudengo Ama abesbatzak eta Ariadna hari laukoteak bat egin eta musika sakroari buruzko kontzertu monografikoa eskainiko dute bihar Altsasuko Jasokunde elizan. Erljio musikaren barnako ibilbidea bi musika taldeekin batera egiteko gonbitea luzatu digute.

Ariadna

Ariadna hari laukote gasteiztarra Isabel Acevedok (biolina),

Alaitz Aialak (biolina), Ainhoa Maraurik (biola) eta Aitziber Orak (biolontxelo) osatzen dute. Lau gazte horiek euren ikasketak bukatu ondoren osatu zuten laukotea 1995. urtean eta atzerriko irakasleekin ikasten hasi ziren. Kamara musika modalitatean emaitza bikainak lortu dituzte eta oraindik ere ikasten jarraitzen dute. Gasteizen maiz jotzen dute, hainbat ekitaldietan.

Kontzertuari dagokionez, musika sakroa eskainiko dute Erkudengo Ama abesbatzak eta Ariadna laukoteak. Bi musika taldeak bakar-kar eta elkarrekin ariko dira kontzertuan zehar. Gasteiztarrek eskainiko duten obren artean Ennio

Morricone-ren *Gabriele's oboe* dago, *La Mision* filmeko soinu-bandakoa.

Gonbitea

“Jendea kontzertura gerturatzea animatu nahi dugu. Musika sakroarekin harremanetan jartzeko aukera paregabea da, musika honen edertasunaz jabetzeko. Izan ere, musika mota honen inguruan ezjakintasun asko dago. Ez dago apenas ezagutzarik eta batzutan jendeak aurreiritzi asko ditu, baina musika oso ederra da. Merez du larunbatean Altsasuko elizara gerturatzea eta musika bikain honekin gozatzea” adierazi digu Erkudengo Ama abesbatzako Puri Alzelaik.

Arakilgo argazkiak aurkeztu daitezke, bi mailetan: jaiak eta tradizioak, batetik, eta ondarea eta paisaiak, bestetik

Arakilgo argazki makinaren begi-zulotik ikusi eta irudia hartzen dutenek aukera dute argazkiak Arakilgo Udalak antolatutako lehiaketara aurkezteko. Bigarren edizio honetan ere bi gai izanen dira eta argazki-lariak lana aurkezterakoan zein mailetan lehiatu nahi duen azaldu beharko du. Hiru gehienez ere.

Lanak garilaren 12ko 23:59ak baino lehen arakilgokultura@gmail.com e-posta helbidera bidali beharko dira. Mezuan argazkilariren datuak eta harremanetarako bideaz aparte, argazkiaren izenburua, deskribapena eta kokalekua gaineratu beharko ditu. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu behar dira, 30cm-tako tamaina-

Sariak*

Jaiak eta Tradizioak mailan	200 €
Ondarea eta Paisaia	200 €
Herri bozketan aukeratutako	80 €

*Argazki batek ezin izango ditu bi sari desberdin jasotzea.

rekin argazkiaren alderik haundien eta 200ppp resoluzioan. Lehiaketara aurkeztutako argazkiak argitaratu gabeak izan behar dute.

Bozketak

Lehiaketara aurkeztutako lanak garilaren 13tik 24ra Arakilgo udaletxean ikusgai izanen dira. Baita garilaren 25ean Etxarrenean egindako Arakilgo egunean. Argazkiak ikusgai dauden bitartean arakildarrek gogoko dutenen alde bozkatzeko aukera izanen dute, bai udaletxean baita Etxarrenean ere. Maila bakoitzeko 10 finalista izanen dira, lehiaketaren azken fase-ra pasako direnak.

Lastaila arteko literatur agurra

Hileko lehen ostegunero moduan, garagarzaroaren 4an, Irurtzango irakurle taldea herriko liburutegian elkartu zen. Gonbidatua ere bazuten: Patxi Irurtzun idazlea. Haren *Atrapados en el paraíso* liburua irakurria zuten taldeko 15 kideek eta idazlearekin iritziak trukatzeko aukera izan zuten. Ohi dutenez ordu bat inguruko hizketaldia izan zuten liburuaren inguruan, 18:00etatik 19:00etara. Ikasturtea despedituta, lastailerako hitzordua egin zuten irakurle tal-



deko kideek. Denboraldi berrian beste idazleren baten bisita izanen dute ziurrenik.

bazterretik

Juankar Lopez-Mugartza

Hamaika galdera bultziaren leihotik

Duela hemezortzi urte, Hendaia-Bartzelona ibilbidea egiten ari zen trenerrailetik aterazen Uharteko Arkiletik igarotzen ari zenean. Trena bidaiariz beteta zegoen, 250 lagun inguru; horietatik (hau ere gutxi gora-behera) ehuneko hamar hiletan herenazaurituta suertatu zen. Istripu larri hau gogora ekarri genuen berriro, Santiagoko gertatu zenean; hura ere izugarrikoa izan zen, ahaztezina. Nire aldetik, gogoratzen naiz txikitant Altsasura bidean gure trenerrailetik atera zela zehazki non ez

dakidala. Ez naiz lekuaz gogoratzen oso gaztea bainintzen, hamar urte baino gutxiago izanen nituen, baina Zuasti aldean izan zela esango nuke. Ez zen istripu larririk gertatu, inor ere ez zen kalteturik atera, baina trenetik irten eta hantxe ibili ginen zer egin jakin gabe, belardi batean gora eta behera, edota lurrean jarrita autobus bat gure bila etorri zen arte.

Orain, urte asko pasa diren honetan, trenaren irudia etorri zait berriz ere indarrez burura Nafarroako egoera politiko berria ikustean. Izan ere, argi dago eskuinaren trenerrailetik atera dela eta dena ez

delaberdi izango hemendik aurrera. Oraindik ez dira ongi jabetu hondamendiaren tamainaz eta haien kuarter generaletan haxe galdeztzen ari dira etengabe: Istripu larria izan da edo autobusa etorriko da garaiz laguntza ematera?

Gure aldetik, ordea, oraindik ez dugu ea gertatu dena egia den edo ez. Ametsa egia bilakatu da eta oraindik ezin sinetsiz gabilta. Esnatuko ote gara eta dinosauroa oraindik egongo ote da han? Augusto Monterrosok gure loaldi goxotik atera eta errealitatearen mundura ekarriko gaitu berriz ere? Dinosauroa gure akatsen eta han-

ka sartzen zain dago, berriz ere agertzeko. Ohatze azpian dago. Gu, berriz, gure amets honetan Olentzerori gutunak idazten ematen dugu gaua eta eguna, gabonak izan gabe: ikurriña gure udaletxetako balkoietan legalki ikusi nahi dugu; sinboloen legea alda dadila; Olentzero buru handiak euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora heda dezala uda beroan; Euskalerria Irratiari lizentzia eman dakio; Euskal Herriko gainerako lurraldeekin harreman instituzionalak izan ditzagula; Euskal Telebista oztoporik gabe ikusteko aukera izan dezagula...

Gure ametsak tren baten bagoiak bezalakoak dira eta amets horietatik bultza egiten duen bultziaren makina, Nafarroako egoera politikoa berria. Batuko gara guztiok? Jakingo dugu gure ezberdintasunak alde batera uzten? Zenbat aldiz joka ibili gara gure artean? Gogoratzen duzue gazetetan abestenguen Benitoren kantahura? “Zenbat gera? Lau, bat, hiru, bost, zazpi? Zer egin degu? Ezer ez. Zer egin dugu? Alkar jo. Zer egin dugu? Alkar hil?” Jakingo dugu gure trena (Lizardi “bultzia” deitu zuena) errailetan mantentzen eta indartsuagoa egiten? Edo kale egingo dugu berriz ere?

Juul aitortza Arretxeri

Literatura sustatzeko proiektuen artean Juul hauteskundeak ditu Nafarroako Ikastolen Elkarteak. Liburuaren egunean ikasleek euren liburu eta ilustratzaile gogokoena aukeratu zituzten hauteskunde bide. Eta pasa den asteartean Iruñean sari banaketa egin zuten. Ikasleek gogoko zuten liburuen artean Jon Arretxek idatzitako *Beti iparralderatz* liburua zegoen eta horregatik saria jaso zuen arbizuarrak.



Sakanako bi bertso eskolak elkarrekin

Ostegunean, 20:00etan, Altsasuko Gure etxean eskainiko dute saioa. Ondoren auzatea izanen da

Etxarri Aranazko eta Altsasuko bertso eskolek elkarrekin despedituko dute ikasturtea heldu den ostegunean. Saioa bertso-eskoletako lagun eta ingurukoendako bada ere, bertsozale guztiei irekia dago.

Etxarri Aranazko bertso eskolan bat-batean trebatzeko lauzpabost ikasle aritu dira. Nafarroako txapelketan aritutako Joseba Beltza, Eneko Lazkoz eta Joxema Leitza eta, haiekin batera, Barañango koplak lehiaketan bigarren saria lortu zuen Saats Karasatorre. Gainera, Unai Artiedak, Alain Iriartek eta Jon Arratibelek lagun-artearen bertsoak kantatze-



ko aukera izan dute. Altsasuko bertso eskolan,

berriz, bat-batekotasunera salto egin dute bost ikaslek: Aitziber

Eskolako ikasleak Sotorekin bertsoan

Gaur, 12:30ean, Urdiaingo Kaluxa tabernan

Nafarroako txapelkunarekin, Julio Soto Ezkurdiarekin batera ariko dira bertsoan eguerdian Urdiaingo eskolako LHko 6. mailako ikasleak. Haiek jakinarazi digutenez, *Hiru txerritxoak* ipuinaren bertso moldaketa egin dute. Bertso horiek kantatu eta ipuina antzetzuko dute.

Grados, Amets Artieda, Ekain Alegre, Haritz Goikoetxea eta Idoia Granizo. Ekain eta Idoia Nafarroako bat-bateko sariketan aritu ziren lan polita eginez.

Pintzeletik Olatzagutia

VIII. Olatzagutiko Pintura Azkarreko lehiaketa jokatu da igandean, 9:00etatik aurrera

Olatzagutiko toki bat aukeratu, astoa jarri, haren gainean koadro txuria, eta pintatzera. Margotzen hasi aurretik,

ordea, koadroaren atzean udalaren zigilua jarri behar dute. Horretarako kultur etxetik 8:00etatik 9:00etara pasa beharko dute margolariek. Edozein teknika erabiliz eta Olatzagutia edo olatziarrak modelo gisa hartuta lan egin beharko dute margolariek. Lanak

17:00ak eta 18:00ak artean aurkeztu beharko dituzte kultur etxean. 18:30ean jakinaraziko dira maila bakoitzeko sarituak.

Izen ematea

Gaur, 14:00ak arte udaletxean eman daiteke izena. Bestela, 948 562 446 telefonora hots eginez edo kultura@olazti.com helbidera idatziz. Igandean 9:00ak baino lehen ere ize-



Sariak

Haurrak (11 urtera arte)	150 €ko balea
Gazteak (12-15 urte)	150 €ko balea
Helduak (16 urtetik gorakoak)	500 €
Akzesita	250 €
Herrikoa	200 €

na eman ahalko da kultur etxean. Haurren mailako izen ematea itxita dago eta hainbatek eman dute. Horiek euskarriak 9:00etatik 10:00ak bitartean jaso beharko dituzte.

Dantza ikastaroa Uharten

Galtz-Horraz taldeak Uharten Arakilgo zortzikoa eta Larrain dantza ikasteko ikastaroa antolatu du. Hilaren 16tik 18ra izanen da, asteartetik ostegunera, 19:00etatik 20:30era. Galtz-Horrazetik uhartarrak plazara joan eta dantza ikastaroan parte hartzera animatu dituzte.



NEREA MAZKIARAN

Kantari etxarriarra Lakuntzan abesten

Iñaki Auzmendi Lakuntza larunbatean, 23:00etan, Lakuntzako Sorgiñak tabernan ariko da

Ahots sendoarekin eta gitarrarekin, hala agertuko da jendaurrean Iñaki Auzmendi Lakuntza. Joan den urteko agorrilean argitaratu zuen *Raíces de Piedra y Esperanza* diskoa aurkeztuko du. Estudioko lana, zuzeneko emanaldi gisa grabatu zuen. Hamar kantu jaso ditu Auzmendik bere lanean. Haietan HIESaz hildako lagunak, prostituta zahar bat, herriaren uzteko unea, badoazen herriei omenaldia, herrietako ibaiak, herrietako bakardadea, Gaztelako herriei omenaldia, migratzaileak eta Jose Antonio Labordeta aipatzen ditu; anaia txikiaren ezkontzarako sortutako kantua gaineratuz.



14 urte zituela sortu zuen bere aurreneko kantua. Aurreneko kantaldiak ikastetxe eta ongintzako jaialdietan eman zituen. 19 urterekin grabatzeko aukera izan zuen baina tren hura pasatzen utzi zuen. 24 urterekin ezkondu egin zen eta familia osatu zuen. Baina ez zion konposatzeari utzi. Aldian behin, zerbait kantatzeko deiak jasotzen zituen. Rabanera del Pinar (Burgos) herrian bizi da eta han opatu du kontzertuetara bueltatzeko bultzada. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

Alokairutik krisirako irtenbidea

Larunbatean, 19:00etan, Lakuntzako kultur etxean

Matilde eta Paula elkarrekin bizi diren adineko bi emakume dira. Beti boterean egon direnek eragindako krisiaren ondo-

rioz, bizi-irauteko, etxeko logelak alokatu beharrean suertatuko dira. Horrek makina bat pasadizo sortaraziko ditu, mota guztietako pertsonaiak pasako baitira etxetik. Horixe da bihar Lakuntzako Kulturille programazioaren

barruan ikusi ahal izanen den komedia, *Verdi que te quiero Verdi*. Oroimenak antzerki taldea ONCEk Gipuzkoan arte eszenikoen alde egindako bultzadaren erakusle da. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

TRANSANTARTICA

ALBERTO IÑURRATEGI, JUAN VALLEJO ETA MIKEL ZABALZAK
BAT BASQUE TEAM-ekin EGINDAKO EXPEDIZIOA.

ETXARRI ARANATZ

KULTUR ETXEA

EKAINAK 12 OSTIRALA-20:00

www.facebook.com/mendirajoanetorria

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 87%	euria: 45%	euria: 70%	euria: 80%	euria: 50%	euria: 15%	euria: 13%
Min: 13 Max: 17	Min: 12 Max: 19	Min: 11 Max: 17	Min: 10 Max: 14	Min: 10 Max: 17	Min: 9 Max: 19	Min: 9 Max: 20

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	33	10	53.9
Etxarri A.	31.3	10.3	22.9
Altsasu	30.5	9	32.1
Aralar	23.5	7.6	21.6
Urbasa	27.8	9.4	38.5

: ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
9	16	24	2

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Bazkide zozketa

GARAGARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri museorako 2 sarrera, Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrera.

2.,3. ETA 4. SARIA:

Gaztezulo aldizkariaren 3 hilabeteko harpidetza, Lacturale lotea, Artium museorako sarrerak, Artazako kanpinerako deskontu balea eta Donostiako Aquariumerako sarrerak.

>> 11 galdera

Aner, Tania, Marga eta Bel

Sakanako Gure Esku Dago

Testua: Eneida Carreño eta Mainer Betelu



Aner, Tania, Marga eta Bel.

ikaslearen agendak eta irakaslearen koadernoak

egin zure eskaria

Guaixe KOMUNIKAZIOA

diseinua & inprimatzea

948 562 107 argi@guaixe.eus

1. Zer da Gure Esku Dago?
Gure Esku Dago Euskal Herrian erabakitze eskubidearen alde lan egiten duen dinamika herritarra da, anitza eta partehartzailea.

2. Hiru oinarri ditu.
Bat, herri bat garela; bi, herri honek erabakitze eskubidea duela; eta hiru, horiaurrera eramateko herritarren unea dela. Helburua argia da: erabakitze hori gauzatzea.

3. Bide horretan hainbat pausu eman dira.
2012an Gazta Zati bat dokumentala aurkeztu zen, eta horren atzetik lan handia egin da. 2013an giza katearen aurkezpena egin zen Durangon eta Gure Eskuren aurkezpena Ficoban. 2014an mosaiko erraldoia egin zen Zurriolan, ekainaren 8ko giza katea Durangotik Iruñera eta orain ekainaren 21eko ekitaldi erraldoia dator.

4. Ekitaldiarekin zer da hemen ehuntzen ari dena?
Ekainaren 21ean berriz ere elkartuko gara, Iruñean, Bilbon, Gasteizen, Baionan, Donostian... gogorazteko lanean jarraitzen dugula, erabakitze eskubidea gurekin dugula eta gauzatu nahi dugula.

5. Zer antolatu da Iruñean 21ean?
Sakandarroi Santa Ana plazan bilteza tokatzen zaigu, Jarautatik oso gertu, 12:00etan. Hortaz aparte, Gaztelun enparantzan, San Franzisko plazan, Udaleko plazan eta El Burgo plazan ere bilduko da jendea. Orain arte herriz-herri landu eta josi ditugun oihalekin zutabezberdinak osatuko ditugu, pla-

za guztiak lotuz. Gero, 16:30etik aurrera zabalduko dira zezen plazako ateak eta 17:30ean hasiko da ekitaldi nagusia. Hautestontzi erraldoia osatuko da eta uste dugu herrietan jositako oihalekin estaliko dela. 20:00etan Esne Beltza, Fermin Muguruza eta beste ariko dira eta jai handia izango da.

6. Autobusak antolatuko dira.
Iruñera joan etorria egiteko Sakanatik autobusak jarriko ditugu, bat goizez joateko eta bestea arratsaldeko ekitaldi nagusira joateko. Joan-etorria 7 euroren truke.

7. Aurretik lan handia egin da.
Tania: Lakuntzan Sakana mailako Gure Eskuren aurkezpen jendetsua egin zen. Bi joste egun izan ditugu. Lehenengoan talde bakoitzak bere oihala prestatu zuen eta maiatzaren 31n oihal guztiak elkarrekin josi ziren, pankarta erraldoia eginez. Haurrak eta helduak, jende asko ibili zen lanean. Igandean Iruñeko sarrerak salduko ditugu, auzatea egonen da...
Marga: Urdiainen apirilaren 25ean joste eguna izan zen. Oso polita izan zen, haurrak eta helduak elkarrekin oihalak prestatzen. Orain 21ekoa antolatzen ari gara.

8. Eta Altsasun eta Bakaikun?
Bel: Altsasun jende asko batu da, proiektu honek ilusioa transmititzen duelako. Aste Santuaren ondoren 2014ko giza kateko argazki erakusketara egin genuen, arrakastatsua. Eta apirilaren 25ean eta aurreko aste joste egunak ospatu genituen. Jende asko bildu zen. Orain mahainguru bat antolatu

nahi dugu. Ibarretxe ekarri nahi genuen baina EEBBetan dago. Ahal duguko Ainhoa Aznarez, Ernaiko bozeramalea eta Gazta zati bateko Ion Maia lotu ditugu, eta Uxue Barkos ekartzea ea lortzerik dugun.

Aner: Bakaikun apirilaren bukaeran joste eguna egin genuen. Haurrak, gazteak, helduak... jende dezente bildu zen, auzatea egin genuen eta orain 21ekoa prestatzen ari gara.

9. Oihaletan jaso diren mezuak nolakoak dira?
Esaterako, Altsasun soka batetik zapiak zintzilikatuta dituzte, eta zapi bakoitzak herri mugimendu bat adierazten du: feminismoa, gaztedia libre, errausketaren kontra... Eta parean "Lortuko dugu" leloa. Denetarik dago eta guztiak dira politak eta beharrezkoak.

10. 21ean sakandarrak Iruñera?
Bai. Ekitaldirako sarrerak salgai daude, zezen plaza alokatzeak, ekipak eta bestek gastuak dakartzalako. Astelehenean bilduko ditugu, hortaz asteburu honetan eros itzazue. Sakanak tendido oso bat betetzeko ardura du eta ea betetzen dugun gure txokoa.

11. Eta ondoren, zer? Helburua urrutira ala gertu dago?
Mugimendu txiki batek kristoren olatua sor dezake, Katalunian gertatu dena, esaterako. Bada garaia, eta gu bagoaz, poliki baina gauzak egiten. Nafarroan mugimendu handia eman da, eta agian Nafarroa motorra izango da, ez daki. Uste dugu gauzatzeko momentua gero eta gertuago dagoela.